





Egun bat Pat Ricerekin Belfasten

- **Sarah Jane Turtle** «Itzulpenean naturaltasuna da helburua, beti ez da erraza baina»
- **Durangoko Azoka** Aurtengo diru arazoak konponbidean
- **Ignacio Ramonet** «Kooperatiben sakoneko filosofia inoiz baino beharrezkoagoa da mundu globalizatu honetan»
- **Net Hurbil** Txiroak 28 urte gutxiago bizi dira Glasgowen
- **Komunikazioa** Hizkuntza zail eta errazen eztabaida akademikoa



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat

160 dokumental baino gehiago ikusgai

Anuken egia
Arrhash, pozoina
Atotxako ikurrina ezkutua
Banlieues. Pariseko erreboltak
Bertsoaren aldagelan
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
CAN: Kutxa hutsa
Debekatuta dago oroitzea
Egunkaria, hamar urte geroago
Elburua Gernika
Erretenak: Y belaunaldia
Espainiako Polizia Euskal Herrian
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskal Selekzioa herri baten ametsa
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Galerna, infernua itsasoan 1912-2012
Gudari baten egunerokoa

Haizea eta sustraiak
Hitz Egin
Ikazkin baten historia
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparraldea XXI
Iparra Hegoa - Errotuz zabaldu
Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Isilpeko Lana (Inside Job)
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Kapitalismoa, maitasun istorio bat
Kontseiluak 10 urte
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Lur basatietako bakardadean
Nabarra Boua eta Matxixakoko guda
Nire bizi osoa espetxean

Nömadak Tx
Oroitarrria
Patio Maravillas
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathon
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai
Selekzio baten ibilbidea
The Pirate Bay - Teklatutik urrun
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian
Tximeletak, etengabeko metamorfosia
Zerutik sua dator!
Ziztadak

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

[EGUZKI BIDEOAK](http://www.eguzki-bideoak.com) *elkarlanean*





Azaleko argazkia:
XABIER LETONA
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.arga.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Kortza, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruñia. Tel: 559 473163. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: GaztelukoPlaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@arga.com. Harpidetzak: harpidetza@arga.com. Erredakzioa: kazeta@arga.com. Interneten: www.arga.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

euskaraz
bai

NON ZER

2014ko uztailaren 6a, 2.422. zenbakia

ASTEKO GAIA

BELFAST Egun bat Pat Ricerekin. XABIER LETONA / 4

PERTSONAIA

SARAH JANE TURTLE: «Euskal Herria herrialde zoragarria izango litzateke independentea balitz». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Herri ekimenak bultzatzeko crowdfunding plataforma. LIDE HERNANDO / 15

EMAKUMEAK JAIETAN Festa parekideak, lortu gabeko ametsa. ANDER PEREZ / 16

LOMCE Irailetik aurrera Konstituzioa ikasgai? MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 19

IRITZIAREN LEIHOA

ZORRAREN ZAMA ERAMAN EZINA MIKEL ZURBANO / 20

ZERBAIT ALDATUKO BADA JON ALONSO / 22

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Milioi zakuak. ITXARO BORDA / 22

BERTSO BERRIAK Oroitza soil bat. JULEN ZELAIETA / 23

ERDIKO KAIERA

IOLANDA ZÚÑIGA: «Galiziak lozorro historikotik atera gabe jarraitzen du». ARITZ GALARRAGA / 24

DURANGOKO AZOKA Finantzaketa egonkorraren bila, irauteko. MYRIAM GARZIA / 27

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URIA / 30

MUSIKA OLATZ KORTA / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

ALEA Bihotzak dio... itzuli herrira. MIKEL ASURMENDI / 33

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

LEHEN MUNDU GERRA Iruñeko Zitadelatik ihes egin zuten alemanen historia. PATXI LARRION / 37

HIZKUNTZALARITZA Hizkuntza guztiak berdin komunikatzen dute? MIEL A. ELUSTONDO / 40

IGNACIO RAMONET: «Kooperatibagintzak demokrazia ekonomikoa proposatzen du». URKO APAOLAZA AVILA / 44

NET HURBIL Glasgow, txiroak 54 urterekin hiltzen diren hiri aberatsa. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Mesprexutik duintasunera, txango bat Pat Ricerekin

Irlandako mugimendu errepublikarreko militante beteteroa da Pat Rice (Camlough, 1941) eta Euskal Herrian aski ezaguna. Lanbidez hizkuntza irakasle izan da. Sinn Feineko zuzendaritzan aritutakoa, batez ere kultura eta atzerri gaietan. Alderdiaren atzerriko ordezkari ere izan da hainbatetan. Galdetu diot ea Belfast erakutsiko ote dion ARGIAko irakurleari, berak nahi dituen lekuak aukeratuta. Eta hark baietz.

Testua eta argazkiak:

| XABIER LETONA |



DERRY-BELFAST autobusa hartu dut goizeko 8:00etan. Jende asko doa Belfastera lanera: lan egunetan 26 autobus ordu daude egunero, goizeko 5:30etik gaueko 22:00etara, lehen orduetan 10 minuturo. Bi orduko bidaia lasaia egin ondoren, autobusa iritsi da helmugara. Hor da Pat Rice, adostu moduan. Primeran, eguraldia ere bikaina da eta hori

hemen probestu egin behar da. Bagoaz eguna zukutzera.

“Egun on. Zer moduz?”, zuzendu zait berehala irribarrez. Eta euskaraz jardun dugu lehenbiziko uneetan, poliki baina ondo moldatzen da. Gaztelera hobeto, hala ere, eta laster egin dugu jauzi hartara. Frantsesez ere mintzo da eta beste hizkuntza mordera ikasi



Ezkerrean, Pat Rice atzean Belfasteko Udaletxea duela. Goian taxi beltz ezagunen geltokia Belfast Mendebaldean. Eta eskuinean, gure protagonista eta Jim Gibney Stormonten, atzean Ipar Irlandako Legebiltzarra dutela.

ditu, besteak beste, italiarra, portugesa, katalana, alemana eta gaeliko eskoziarra. “Gaeliko edo irlandera, nola nahiago duzue izendatzea zuen hizkuntza?”, galdetu diot. “Oro har irlandera, batez ere ingelesez ari bagara, horrela hobeto zehazten dugulako Irlandako hizkuntza dela, baina irlanderez ari garenean gaelikoa esaten diogu. Tira, orain mugitu behar dugu, Stormontera goaz”.

Protestanteen Legebiltzarra

Sartu gara autoan eta gidariarekin gaelikoz jarraitu du. Jim Gibney da, mugimendu errepublikarreko militante historiko ezaguna eta gaur egun Jenifer McCann (Sinn Fein) Gobernu Autonomoko ministroaren aholkularia. Ordu laurden ondoren iritsi gara Stormonteko eremura. Han dira Ipar Irlandako Legebiltzarra eta Gobernu Autonomoa. Gu Legebiltzarreko egoitzara goaz zuzen, gain txo batean dago eta bere oinetara ageri da Belfast. Hamarkada batzuk atzera bere oinpean ziren Irlanda iparraldeko katoliko eta errepublikarrak; haien zapalkuntza historikoren sinboloa da. Autotik atera, begiak eraikuntzari luzatu eta zera dio solemnitare doinuz Pat Ricek: “Parlamentu protestantea herri protestantearentzat. Horixe esan zuen Lord Brookeborough lehen ministroak XX. mende hasieran”.



“Alderdiarentzat gaitza izan zen eraikuntza honetara sartzea –dio Gibneyk–, Legebiltzar hau, herrialdearen zatiketa bermatzeko eratu zen eta. Hasieratik bultzatu eta babestu izan zuen *apartheid* sistema bat, Hegoafrikan bezala. Uharte honetako protestanteekin elkarlanean jarduteko gaude hemen, haiek ere bertako herritarrak direlako”. DUP alderdi unionista-eskuindarra da nagusi Legebiltzarrean eta Peter Robinson, Ipar Irlandako Gobernu Autonomoko lehen ministroa. Sinn Feineko Martin McGuinness da lehen-ministrotordea. 1998ko Ostiral Santuko bake akordioaren arabera, elkarrekin gobernatu behar dute unionista eta errepublikarrek.

Abendu bukaeran Haass elkarrizketak porrotean amaitu ziren, unionismoak ukatu egin zituelako Richard Haass bitartekari amerikarrak egindako proposamenak. Sinn Feinek, SDLPk eta komunitate arteko alderdi Alliance-k onartu zituzten eta, DUP eta UUP unio-

BELFAST



Belfasteko Colaiste Feirsten 560 ikasle ikasten dute gaelikoz. Eskuinean Mícheál Mac Giolla Gunna zuzendaria, erdian Rice eta eskuinean Diarmaid ó Bruadair irakaslea.

nistek ez. Harrezkero ez da ezer entzuten. “Eta orain zer?”, galdetu diot Gibneyri. “Europako eta udaletako hauteskundeak ziren tartean eta testuinguru hori oso gaitza zen unionisten-tzat. Orain berriz helduko zaie elkarrizketei, baina oraingoa aurrekoan agertu ez duen konpromisoa eskatuko diogu Gobernu britainiarrari. Hemen gauzak konpontze bidean jarri baziren, Gobernu britainiarrak borondatea izan zuelako da, unionistek behin ere ez zuten agertu konponbiderako nahirik. Richard Haass ere hor izango da eta Hegoaldeko [Irlandako Errepublikako] Gobernu ere bai”.

Stormontetik alde egin aurretik ezin utzi galdetu gabe ea Irlandako iparraldean ez ote duten erreferendumik egin behar, Eskozian moduan. “Nahi dugu, bai, eta Gerry Adams-ek argi utzi zuen iaz hori zela gure asmoa. Ostiral Santuko Akordioan arabera, zazpi urtero egin ahal izango da erreferenduma”. “Eta zergatik ez duzue egin orain arte bada?”. “Instituzioetan ezegonkortasun handia egon delako eta hori bideratu behar zelako lehenik. Orain harreman egonkorragoa dugu unionistekin eta bada aukera erreferenduma planteatzeko”. Gibneyk bilera du Belfast erdigunean eta hirira eraman gaitu Rice eta biok.

“Orain nora, Pat?”. “Bigarren hezkuntza ematen duen eskola batera joango gara. Ehunka ikasle dena gaelikoz ikasten –jaurti du harrotasunez–. Belfasten eta Iparraldean mota horretako eskola bakarra da. Taxia hartuko dugu horretarako”. Oinez goaz. “Begara, han dago taxi beltz ospetsuen geltokia. Eta bide batez, tea hartuko dugu”. Tea eta gaila-txo batzuk, jakina, oso ohikoa uharte osoan. 40 urte atzera eginez eta gatazkaren garai

“Parlamentu protestantea herri protestantearentzat . Horixe esan zuen Lord Brookeboroug lehen ministroak XX. mende hasieran”

Pat Rice

gogorrenetan murgilduz, autobusek uko egin zioten Belfast Mendebalde gatazkatsuan ibiltzeari, sarri barrikada gisa amaitzen zuten eta. Garraio alternatibo gisa Londresetik ekarri zituzten lehen taxi beltzak.

Bero-bero dago tea. “1968tik 1971ra Donostian bizi izan nintzen. Hizkuntza irakaslea nintzen eta irlandera eta frantsesa

irakasten nituen. Gaztelania ere ikasi nuen, eta nire buruari esan nion euskara ere ikasi behar nuela, eta azkenean ikasi dut”. Irlandan irakaskuntzatik bizi izan da, baina Sinn Feineko zuzendaritzako atzerriko ordezkari gisa aritu da luzez eta harreman handia izan du Euskal Herriarekin. Oro har, Europa osoan ibili da atzera aurrera. 2001etik aurrera udazkenero pasatzen ditu bi hilabete Lizartzako (Gipuzkoa) bere etxean..

Eskola gaelikoa

Osatu dugu boskotea eta taxi beltza abiatu da Colaiste Feirste ikastetxera. Sarreran ditugu zain Mícheál Mac Giolla Gunna zuzendaria eta Diarmaid ó Bruadair irakaslea. Harrera egin ondoren, Bruadairek bazkaltzera gonbidatu gaitu eskolako jantokira. Hara iristeko kirol-gunetik pasatu gara eta, besteak beste, 13-14 urteko mutil taldea esku-pilotan ari da. Bete-bete da jantoki zaratzatsua. Hileran jarri, jakiak jaso eta berriketari ekin diogu, oso eza-gun egiten zait entzuten ari naizena: “1991n sortu zen eskola, 9 ikaslerekin, Estatuaren inongo laguntzarik gabe eta orain 11-18 urte arteko 560 ikasle ari dira bertan. Neskak eta mutilak elkarrekin. Ez dago hautaketa prozesurik, ezta haien arteko mailakatzerik ere. Ez katoliko ez protestante, baina egia da gehien-goia katolikoa dela. Ipar Irlandan 3.500 ikasle

ari dira ikasten irlandez lehen eta bigarren hezkuntzan”.

Azkar bazkaldu dugu, denborarik ere ez dut, jan, hitz egin eta libretatxoan datuak bilzteko. Azkenak gara. Oro har, bazkaria di-da egiten da hemengo eskoletan; ez dakit gu 15-20 minutu egon ote garen ere. “Eskola dut orain, nahi duzue gela ikusi?”.


Eraikin nagusiaren ondoko bospasei barrakoieta bat da bere gela; eraikuntzan aldaleku edo bulego moduan erabiltzen dituzten horietakoak dira. “Orain hauek dau-den tokian udan eraikin berriaren eraikuntza lanei ekingo zaie, ia 20 milioi euroko inbertsioa egingo da”. Hogeiren bat ikasleri azaldu die Euskal Herriko aldizkari baterako erreportajea egiten ari naizela. Ricek ere hitz egin die. Serio ari dira entzuten eta ezohiko bisitak bazkalosteko alferra gaintzen lagundu die. Ez da batere ohikoa Irlandan, eta ederra da hainbeste jende gaelikoz entzutea: idazkari-tzan, korridoretan, jangelan, gimnasioan... Iruñeko ikastolako eta D ereduko haurrak datozkit burura: nola hitz egingo dute ohiko-an haien artean haur eta gazte haiek? Aurrera doazela begi-bistakoa da, harrotasuna dario Bruadairi eta Ricentzat ere garrantzitsua zen oasi hau erakustea, hizkuntzak etorkizunik izango badu, eskola giltzarri da eta.

Belfasteko Udaletxea

“Kaixo Xabier”, “Kaixo Maírtin”. “Hemen zara berriz?”, bota dit irribarrez Maírtin Ó’Mulleor alkateak, iazko irailean egin bainion elkarrizketa. Aste Santuko ohiturari jarraituz, txokolatzeko arrautzatxo oparitu dit. “Bai, oraingoa Patekin”. Sinn Feinekoa da, Udaleko indarrik garrantzitsuenek urtero txandakatzen dute alkatea eta 2014ko ekainera arte bere txanda da. Denboran atzera eginenez sinesgaitza bada ere, Sinn Fein da Belfasteko lehen indar politikoa.

Belfast Media Group komunikazio taldeko burua da alkatea, baina alkate eta zinegotzi den bitartean lan hori bazterrean utzi du. Ez da geldirik egotea gizona, ez Udalean, ez kalean eta ez Twitterren (@newbelfast). Maratoian korrika ikusiko duzu orain eta geroxeago unio-nistek ospatzen duten Lehen Mundu Gerraren ekitaldian (azaroak 11), errepublikar hain-baten haserrea piztuz. Ricek nahi du berak azaltzea nola ikusten duen egungo Belfast. Tea hartuaz bat, ondo ikasitako hitz jarioari ekin dio alkateak. “Gure autoak aurrera bakarrik egiten du, ez du atzera egiten. Batzuek guztiari esaten diote ez, eta nire urtebeteko agintaldian bai diogunok aurrera egin dugu. Begira bi margo horiek, William Conor margolariarenak dira, batean Orange Ordena [muturreko talde

Kalean da udako



aizu!

- **Euskal Herritik mundu zabalera bidaiari**
- **Shakti Olaizola bihurrikaria arin-arin**
- **Udalekuetan, jolastu eta ikasi**

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €
aizunet.org

BELFAST



Ezkerrean, Belfasteko alkate Maírtín Ó'Muílleor (Sinn Fein) eta Rice udaletxean. Alkateak urtebete egin du alkatetzan –alderdi nagusienek txandakatzen dute urtero– eta Belfast nola ikusten duen azaldu digu. Eskuinean, Sean Mac Sheáin-ekin, Bothar Seoighe gaeliko komunitateko sortzaileetakoarekin.

loialista] eta bestean kirol gaeliko bat. Saiatu naiz guztion sinboloak plazaratzen eta uste dut unionistek estimatu dutela. Hedabideen artean, *Belfast Telegraph* egunkari unionista izan da nire agintaldia gehien estimatu duena –dio keinu bihurria eginenez–. Mandelak zioen bezala, hau ortzadar hiria da, munduari begira dagoen hiria, aurrerazalea, ekonomikoki hazten ari dena. Guztiok elkarrekin bizi behar dugun hiria”.

Isilik da Pat Rice, baina ederki daki zertaz ari den alkatea, bera 12 urtez izan zen Sinn Feineko zinegotzia Lisburn-en, Belfast Metropoliko hirian, 1985etik 1997ra arte. Azken 40 urteetan gatazkaren ondorioz izandako ia 3.700 heriotzetatik 1.600 Belfasten gertatu ziren. Udaletxe hau ere katoliko bazterketa historikoaren sinbolo da eta Ricek aldaketa erakutsi nahi du. Altxatu eta bagoaz, hori bai, bisita-liburuan sinatu eta alkateak berehala Twitterren jarriko duen hiru argazkia egin ondoren. “*Slán eta go raibh maith agat*” (Agur eta eskerrik asko).

Arratsaldeko hirurak dira Udaletxetik atera orduko eta taxiaren zain, Udaletxe ondoko eserleku batean jarri gara eguzki izpiak atsegin ez irentsiz. Barraskiloak bailiran, zain dira Belfasteko bi-hankakoak eta udaberriko lehen eguzki printzekin sandaliak, fraka motzak eta tirante-kamisetak barreiatzen dira kaleko paisaian. Isildu barik ari gara eta lehen neke keinuak sumatu dizkiot Pati. Baina tren hau ez da geratzen oraingo; hurrengo geltokia, Bothar Seoighe komunitatea, Belfast Mendebaldeko Andersonstown auzoan.

Gaelikoz bizi nahi zuten

Te, gaila eta sandwich artean jo du berriekaldia berrituz. Sean Mac Sheáin-en (71 urte)

jarria itzela da. 60ko hamarkadaren hasieran zazpi familiak gaelikoz bizitzeko hautua egin zuten eta etxebizitza komunitatea eratu zuten horretarako. Gaeliko gaueskoletan hizkuntza ikasi, etxeak egin eta ekin bizitzeari, bederatzi hurreko eskola eta guzti. Eginkizun latza izan zen, baina fruitua goxoa: gaur egun 27 etxeko komunitatea da eta lehen hezkuntzako eskola honetan 400 haur ari dira, dena gaelikoz.

“Hori guztia instituzioen inongo laguntzarik gabe –dio Sheáinek–. Kontrakoa, espetxeratu gintuztela zioten, haurrak ez eskolatzeagatik. Oso zaila izan zen dena gatazkaren urte gogorrenetan, baina tira, agian horrexegatik egin genuen. Gure belaunaldia mespretxatua bizi zen, burumakur, baina apurka gero eta begirune handiagoz begiratzen gintuzten, eraikuntzarako materiala erosten genuen, etxeak eraiki... eta hori ez zen txantxetako”. “Bai, miraria izan zen giro hartan hainbat jende gaelikoa ikasi izana. Izen irlandarrak genituen askok eta kalean elkarri deitzeko beldurrez aritzen ginen –baiesten du Ricek–, eta begira orain”. Eta orain zer?

Baikor da Sheáin, aurrera doaz. Pat Ricek tinko egiten du bat harekin. Astebete lehenago manifestazioa izan dute Belfasteko kaleetan gaelikoaren alde. Sheáin mintzo da: “10.000 pertsona bildu ginen eta han ez zen beldurrik, 30 urtetik beherako gazteak nagusi, aurpegiak pintatuak, tabernetan sartu-irtean, beldurra galdu dugu eta gaelikoa kalean da. Victoria Centerreko kafetegian neska zerbitzariak gaelikoz galdetu zigun: ‘Manifestazioan egon zarete?’. Sinestezina zen. Hizkuntza berreskuratzen ari da eta gure belaunaldia da hori ikusten ari den lehen. Nola ez gara baikor izango?’. Batek daki etorkizunaz,

“Orain berriz helduko zaie Haas elkarrizketei, baina oraingoan aurrekoan agertu ez duen konpromisoa eskatuko diogu Gobernu britainiarrari”

Jim Gibney,
Gobernu Autonomoko aholkularia



Falls errepidetik sartu gara Milltown hilerrira eta argazkikoa Gibraltarren armada britainiarreko SAS talde bereziek hildakoen hilobia da. Eskuinean Belfast Mendebaldeko Cultúrlann, gaeliko kulturaren zentroa.

baina burua altxa duen zapalduaren bihotza mintzo da Sheáinenetik. Nola ez sinetsi?

“Etorri garajera”, diosku, eta bere alaba idazleak (Caitriona Nic Sheáin) gaelikoz argitaratutako sei ipuin oparitu dizkit. Edizioen kalitatea itzela da. *“Go raibh maith agat”* (eskerrik asko). Asko ematera ohitua dagoenaren eskua tinko estutu eta Rice eta biok bagoaz. Eguna eta Pat apaltzen ari dira, eta haiekin gure itzulia.

“Hizkuntza berreskuratzen ari da eta gure belaunaldia da hori ikusten ari den lehena. Nola ez gara baikor izango?”

Sean Mac Sheáin, komunitate gaelikoko kidea

Hildakoen oihartzuna

“Hilerrira goaz, ezinbesteko bisita lekua da”. Belfast mendebaldeko Milltown hilerrira da, Falls errepide mitikoan. Hildako errepublikarren eremura badira 300 bat metro sarreratik eta lasai goaz haraino, kontu kontari. Gustura jarri da hilobi arteko harmailatxo batean; behar du atsedena. Ondoa du Lawrence Marleyren hilobia: “IRAKo kidea zen, etxean zuen gaubeila eta ehorzketa errepublikarra egin gura zitzaion. Lehenengo egunean poliziak eraso egin zuen etxetik ateratzean; bigarren jende gehiago zegoen, baina hala ere, atera eta eraso berriz; hirugarrenean hainbeste jende zegoen ez zirela ausartu. Eta ehorzketa errepublikarra izan zuen. Begira, hor dira Gibraltarren hil zituzten hiru boluntarioak. Haien ehorzketan izan zen Michel Stone loialistaren eraso”. 1988ko martxoaren 6a zen eta hiru irakideak ehorzten ari zirela, Stonek granada bat jaurti eta tiroka eraso zion jendetzari. Ondoren, hilobi arteko ihesari ekin zion dozenaka gazte jarraika zituela, eta Stonek tiroz eta granadak jaurtiz erantzuten zien. Bi zibil katoliko –Thomas McErlean eta John Murray– eta IRAko kide Caoimhín Mac Bra-daigh hil zituen; beste 60 pertsona ere zauritu zituen. Jendeak Stone harrapatu eta jipoitzen hasi zen; polizia heldu eta heriotzetik salbatu

zuen. Eguzkia gero eta beherago dago eta kanpo aldera abiatu beharra dago. *“Slán Pat”*, bota dio bisitan datorren emakume taldeak.

Telefonoak jo du Riceren patrikan. Marthita da, bere bigarren emaztea. 2001ean galdu zuen lehena, Pádraigín, auto istripu batean, eta 2004an ezkondu zen berriz, Martha Eugenia Manzanorekin. Gaur espainiar klaseak ematen dituzte biek 20:00etan eta dagoeneko 18:45 dira. “Ez dakit dena egingo dugun Xabier, hemendik gutxira klaseak ditut eta. Baina orain goazen Cultúrlannera”.

Gaelikoaren kultur etxea da eta ondoan dago. Eliza presbiterianoa zen aspaldi eta 1991n bihurtu zuten kultura gaelikoaren bihotz. Sartu gara eta hutsik dago ia, laster itxiko dute. Gaelikoaren irakaskuntza, kultur ekitaldiak, taberna, jantokia, liburutegia... Dena moderno, atsegin eta txukun. “Iparralde osoko gaeliko liburutegi garrantzitsuena du. Lehen egon garen bigarren hezkuntzako eskola hori hemen hasi zen bederatzi haurrekin”. Eta denbora agortu zaio lagunari, nahikoa ahalegin egin du. Bagoaz hemendik ere.

Elkar agurtu dugu. Berak kalean gora hartu du autobusa, nik hiriaren erdigunerrantz. Falls errepide ospetsuan barrena noa eta gertu da Shankill errepidea ere, esparru protestante mitikoa. 20:00ak dira eta kaleak hutsik ia. Aspaldi hasi da hozten, baina azken eguzki printzak jostari ari dira oraindik Europa Geltokiko leihoeekin. Bizipenez jositako egun luze eta mamitsua izan da. Nekatuta eseri naiz Derryra itzuliko nauen busean. Ez dakit nola emango duen Ricek gaurko klasea. Txiki ikusten dut Belfast atzean, gero eta txikiago. Mila esker Pat, bihotz-bihotzez. ■



SARAH JANE TURTLE

«Euskal Herria herrialde zoragarria izango litzateke independentea balitz»

Xingola bat du liburuak: “Euskadi Saria 2013, Euskarazko literatura itzulpena”. Mark Twainen *Tom Sawyer-en abenturak* da liburua. Itzultzaileak, berriz, Iñaki Mendiguren eta Sarah Jane Turtle senar-emazteak. Ezkio-Itsasora hurreratu gara emakume ingelesari galdezka.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Zertan etorri naizen, diozu?

Bai, ez dut nire burua pertsona interesgarritzat jotzen, guztiz arrunta naiz.

Euskadi Itzulpen Saria irabazia zara...

Iñakiri [Mendiguren Bereziartu] lagundu besterik ez nuen egin. Harry Potter-en liburuak itzultzen lagundu nion modu berean, alegia. Ingelesak dituen zenbait korapilo bihurri askatzen lagundu nion. Tom Sawyer-en lanari dagokionez, horrexek irabazi baitzuen azkeneko Euskadi Saria, enkarguzko lana izan zen. Ingalaterran geundela jaso genuen mezua, Eguberri jaietan, nebarenean. Lehenengo gauza, herriko liburu-dendara joan eta liburua erosi genuen. Irakurri gabea nintzen. Txikitan, ikusia nuen Tom Sawyer-en istorioa filmetan, entzuna nuen, ezaguna zitzaidan, baina liburua osorik irakurri gabea nintzen. Guk Charles Dickens irakurtzen genuen, besteak beste. Eskolan Dickens irakurri behar izaten genuen. Hortaz, Tom Sawyer hartu, lehenengo atala irakurri, eta nahiko zaila iruditu zitzaidan.

Nahiko zaila...

Gogoan hartu behar duzu 1876an idatzi zuela Mark Twainek, AEBetako inguru hartako dialektoan, halako mundu ikuskera jakina ageri dela liburuan, eta hau eta hura. Lehenengo atala irakurri, ordea, irakurtzen segi, eta gozatzen hasi nintzen, benetan gozatzen. Izan ere, ez baita, bakarrik, gazteentzako

liburua. Gustatu egin zitzaidan. Lehenengo atala irakurri eta ez nion Iñakiri esan zail xamarra iruditu zitzaidala. Beraz, baietz esan zezan animatu nuen. Horrelaxe onartu genuen Galtzagorri Elkartearen enkargua. Oso istorio ederra da, azalean ez ezik, sakonean dagoena ere zeharo interesgarria da. Nik irakurri eta gero hasi zen Iñaki liburua irakurtzen, eta, laster, itzultzen. Kapitulu bat itzuli ondoren, bata bestearen ondoan jarri eta itzulitakoa aztertzen genuen, eta korapilo bihurriak askatzen genituen. Edo internetera jo eta ikerketan hasten nintzen...

NORTASUN AGIRIA

Sarah Jane Turtle (1952, Croydon, Ingalaterra). Aleman eta Espainierazko Filologia ditu unibertsitate ikasketak. 1975ean heldu zen Euskal Herrira. Bilbon ezagutu zuen gaur egun senar duen Iñaki Mendiguren Bereziartu itzultzaile zaildua. Adrian Zelaiak ezkondu zituen, zibiletik, 1976ko urriaren 30ean. Biharamunean, elizaz ezkondu ziren eliza protestante batean, erreforma protestantearen egunean. Bilbon eta Arrasaten bizi izan ziren, Ezkio-Itsason baino lehen. Ingeles irakasle jardun zuen hainbat urtez, baina itzultzaile ari da aspaldi. Senarrak itzuliak dituen Harry Potterren liburuen atzean da Turtle, eta haren ondo-ondoan, berriz, *Tom Sawyer-en abenturak* lan sarituan. Itzultzaile da, baina auzoko zenbait gazteri ingelesa ikasten laguntzen ere ari da, urrik.



SARAH JANE TURTLE

Tom Sawyer-en abenturak baino lehen, Harry Potter ere itzuli zenuten. Bi lan zinez diferente.

Esan beharrik ez duzu. Harry Potter gaur egungo istorioa da. Haren zailtasuna, hiztegi oparoa da, lokuzio mordoia... Ingeles maila jasoa behar zen hura itzultzeko. Iñaki hura itzultzeko gai izan zen, berak egin zuen lanik handiena, baina, beti, elkartu –igandez, gehienbat–, eta korapiloak askatu behar izaten genituen, aditz esaldiak eta beste. Dena dela, zure galderari helduz, bi lan ezberdin dituzu Tom Sawyer eta Harry Potter, ez dago konparatzerik. Harry Potter fantasiaz betea da, magia... Tom Sawyerrek, aldiz, garaiko gizarte hura du oinarri, eguneroko bizitza... Batean eta bestean, eskolak esanahi diferenteak ditu, elizaren garrantzia, haurrak tratatzen zituzten modua...

Euskadi Literatura saridunetan, ingelesdun bakarra zara.

Ez diot horri begiratu, benetan. “Bakarra”... esan dezagun, lehenengoa naizela. Bilbon ezagutu nuen Iñaki, nik unibertsitate ikasketak bukatu baino lehen. Unibertsitateak Aceros de Llodiora bidalia ninduen gaztelania ikastera, baina Bilbon bizi nintzen eta Bilboko eliza protestante batean ezagutu nuen Iñaki. Azken azterketa egin eta Bilbon lana inguratzeke zoria izan nuen; hain zuzen, han bizi baitzen Iñaki, Deustuko unibertsitatean historia ikasten. Laster sartu zitzaidan buruan euskaraz ikasiko nuela. Bilbon ez nuen euskararik behar jendearekin komunikatzeko, baina gogo horixe nuen. Hasteko, Iñaki euskalduna zelako, eta haren familia osoa, eta, bestalde, gaztelania ez zegoelako desagertzeko arriskuan, pentsatu ere ez. Aldiz, ez zegoen euskaraz hitz egiten zuen hainbeste jende, eta nik euskara hitzun bat gehiago izan nahi nuen.

1975ean heldu zinen Bilbora, urte seinalatua. Francoren heriotza.

Unibertsitate ikasketak bukatu eta etorri nintzen. Hemen naiz harrezkero. Oso garai interesgarria zen, nahi baduzu. Gorabehera handikoa. Aldaketak bata bestearen ondoren etorri ziren, oso arin ere. Manifestazioak, berriz, egunero. Kontuz ibili behar zinen. Hura ez zen Ingalaterra. Hego-ekialdetik etorri nintzen, landa eremu zoragarria, Londres kanpoaldean... Bilbo zeharo diferentea zen, egokitu nintzen, baina zailtasunak ere izan nituen: Espainiako Estatua ez zegoen Europar Batasunaren barruan, eta lan eta erresidentzia baimenak eskatu behar izan nituen, eta ia ezinezkoa zen haiek lortzea. Betikoa: “Hemengoren batek ere egin lezake zure lana”. Itzulpen-lan handia egin ari nintzen,

Euskara

“Pena da hainbeste jendek euskaraz ez hitz egitea. Gazte askok hitz egin dezake, baina ez dute egiten. Lan handia egin da hezkuntza sistemaren bidez. Baina... Jendea hasten denean esaten: ‘Ezin duzu inor behartu euskaraz hitz egitera’. Tira, eta non hitz egin behar du, bada, Euskal Herrian ez bada? Non erabili behar du? Jendea bultzatu behar da, hitz egin dezan, erabili dezan. Ez dakit, hala ere, etorkizuna distiratsu datorren. Nik, ahal dudan guztietan hitz egiten dut euskaraz”.

harreman-lana, lan-agentzia batean. Gehienbat Euskal Herriko eta Galiziako marinelak kontratatzen zituen Liberiako banderadun ontzietan lan egiteko. Komunikazio osoa ingelesez zen eta, beraz, ingeles maila ona zuen norbait behar zuten, idatzizko harremanetarako, batik bat. Hala ere, urtebetean egingo nuela lan esan zidaten, bertako norbaiti erakutsi behar ziotela lan hura egiten. Alde batetik, ulergarri ere bada, baina egokiera horretan, ezkontzea erabaki genuen! Kar, kar...

Kar, kar...

Baina horrek ere ez zuen askorik lagundu. Poliziarenera joaten segitu behar izan nuen, agiriak betetzen eta gainerako joan-etorriak egiten. Dena dela, 1976an ezkondu egin ginen. Bost urtez egin nuen lan bulego hartan eta, ondoren, Arrasatera joan ginen bizitzera, Iñaki han hasi baitzen irakasle. Ordurako, ingeles eskolak emanda nengoen, gustatu ere bai, eta horrela, 1980an, ingeles irakasle hasi nintzen erabat. Eta irakasle izan nintzen hogeita bi urtez, Arrasaten.

Ingalaterran jaioa, Bilbora etorri zinen. Arrasatera jo zenuen gero, Ezkio-ltsason zara aspaldi... Bada mugimendua!

Jakina, hemen ez zarete askorik mugitzen. Ni berriz, beti ibili naiz horrela, halako gaitasuna dugu. Baditut lehengusu-lehengusina zenbait, urtetan eta urtetan ikusi ez ditudanak, beti hara eta hona dabil-eta jendea. Iloba bat badut Australian bizi dena, hango batekin ezkondua. Urteak dira ikusi ez dudana, eta batek daki inoiz berriz ikusiko ote dudan! Arestian esan dudanez, Ingalaterrako hegoekialdean jaio nintzen. Unibertsitatera, berriz, iparraldera joan nintzen, Itzulpen eta Interpretaritzan oinarritutako Filologia ikasketak egitera Bradford-eko unibertsitatean. Beraz, eguneroko ogia zen batera eta bestera joatea. Nire kasuan, hizkuntzak izan dira tarteko, itzultzaile eta irakasle jardun dut, Bilbon nahiz Arrasaten. Duela hamabi urte, berriz, irakasteari uztea erabaki nuen, gure etxetik Arrasatera joan eta etorri ez ibiltzearen –errepideak ere ez zuen laguntzen–, eta Iñakik ere horixe esaten zidan: “Utzi ezazu, emakumea. Hasi berriz itzultzen, etxean”. Ez nuen bi aldiz pentsatu. Erabakia hartu eta hemen naiz harrezkero, etxean itzultzen, pozik.

Hizkuntzen artean igeri...

Beti hizkuntzen artean igeri... Ondo hitz egiten dudan hizkuntza bakarra ingelesa da. Gainerakoan, nire euskara hobetzen saiatzen naiz. Ahoskera ez dut oso ona. Jende artean

euskaraz, eta lore exotiko bat banintz bezala sentitzen naiz. Bai, begiratzen didate, aditzen didate, badakite ez naizela hemengoa, non goa naizen galdetzen didate: “Ingalaterra-koa”, eta harritu egiten dira, beste planeta batetik etorri naizela iruditzen zaie. Aldi berean, errazago onartzen nau hemengo jendeak. Batik bat, euskaraz hitz egiten dudalako. Zalantzarik ez horretan: sekulako abantaila da. “Euskaraz hitz egiten ikasteko ahalegina egin du emakume honek”, diote, edo pentsatzen dute. Bestalde, ikusten dute jende askok, bertako askok, ez duela horrelako ahaleginik egin. Nik, aldiz, bai. Horixe dut alde. Hizkuntzak ikasteko erraztasuna ere badut. Beti jardun dut horretan. Eskolan frantsesa, latina eta alemana ikasi nituen, eta gero, unibertsitatean, filologiako hizkuntzak alemana eta espainiera izan ziren. Euskarari dagokionez, etxean bertan izan dut irakaslea. Sei hilabetean besterik ez naiz euskaraz ikastera joan, Arrasaten nintzen garaian. Hiztegia ikasi behar nuen, gramatika landu... Ingeles irakasteko agiria eskuratzeko asmoa hartu nuen halako batean, eta urte sabatikoa hartu eta Londresera joan nintzen. Urte hartan, agiri hura lortzeaz gain, euskarazko eskoletara ere joan nintzen Arrasaten. Primeran! Gainerakoan, ia konturatu gabe ikasi dut euskaraz. Elkar ezagutu genuenean gaztelaniaz hitz egiten genuen Iñakik eta biok. Poliki-poliki, euskarazko hitzak eta esaldiak ikasi ahala, erabiltzen hasi nintzen. Euskaraz esan ahal nituen gauza errazak euskaraz esaten hasi nintzen. Besteak, gaztelaniaz edota ingelesez. Eta, konturatzeko, Iñaki eta biok gero eta gaztelania gutxiago erabiltzen ari ginen, eta gero eta euskara gehiago. Garai batean guztiz normala zen gure artean gaztelaniaz hitz egitea. Gaur egun, normalagoa dugu ingelesez hitz egitea, gaztelaniaz hitz egitea baino. Dena dela, euskaraz hitz egiten dugu guk. Alde horretatik, zori handia izan dut.



Euskara erraza, euskara zaila... Zer diozu zuk?

Zaila. Gramatika ikastea zaila da, oso. Ingelesaren kasuan, hiztegia eta ahoskera dituzu zailtasunak. Euskararen egitura osoa, berriz, zeharo bestelakoa da. Ez du beste baten antzik. Alemana eta gaztelania zailtasun handiegirik gabe ikasi nituen. Baina, euskara? Inoiz gertatu zaidan hizkuntzarik zailena da. Euskalki ezberdinak ulertzea ere kostatzen zait, nahiz eta hori praktika kontua den, jendearekin hitz egitea... Bestalde, duela urte



Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

AZKEN HITZA

Gurasoak

“Hor ikusten ditut gurasoak, estresatuta, umeek ingelesa ikas dezaten. Lasaitu egin beharko lukete, presarik ez izan. Garaia heltzen denean, ikasiko dute, ikasi behar baldin badute: joango dira ingelesez hitz egiten den herrialde batera, edo igaroko dute ikasturtea atzerrian”.



batzuk, irakaskuntza utzi eta berriz itzultzen hasi nintzenean, euskaratik ingelesera itzultzeko aukera izan nuen, *Euskaldunon Egunkariarentzat*. Zori handia izan zen. Irakasteari utzi, eta egunkariaren lan hura azaldu zitzaizgun. Bikaina! Jakina, zenbait proba egin genituen, Martxelorekin [Otamendi] hitz egin... Egunero, hiru albiste itzultzen genituen euskaratik ingelesera, *Egunkariaren* interneteko ediziorako. Baina zoritxarrez, itxi egin zuten. Hala ere, gero *Berrian* jarraitu nuen hainbat urtez, arrazoi ekonomikoengatik hura ere bertan behera geratu zen arte.

Bi buru zineten itzultzen.

Testua itzultzen nuen. Ondoren, Iñakik gainbegiratu egiten zuen, testua behar bezala uler-tu ote nuen egiaztatzeko. Jarraian, berriz lantzen nuen, ingelesez hobetzeko asmotan. Izan ere, irakurtzen duzunean, ez du itzulpena eman behar, horrelaxe sortu dela eman behar du, originala. Horixe erakutsi zidaten unibertsitatean, horixe lortzen saiatu behar duzu, testua al bait naturalena izatea. Eskarmentua behar da horretarako. Orain, itzuli behar dudanean, testua irakurri eta ideia nagusia neureganatzen dut. Ziur izan behar naiz ez dudala ezer oker ulertu. Testuari heltzen diodanean, al bait naturalena izaten saiatzen naiz. Alegia, esaldi motzak egiten ditut, ordena aldatzen dut... Burura etortzen zaidan edozer gauza. Naturaltasuna da helburua, beti ez da erraza baina!

Euskaldunon Egunkariarik ez dago aspaldi...

Ez dago, ez. Itxi zuten. Itxuragabekeria izan zen. Egunkari bat horrela ixtea! Arrazoirik ez zen horretarako. Bertako jendea preso hartu zuten! Frogarik ba al zen, bada? Asmatu egin zituztela ematen zuen. Haserretu egin nintzen. “Zer da hau, ordea? Ez dut hemen egon nahi, beldurgarria da!”

Horrelakorik gerta ote zitekeen Ingalaterran?

Egunkari bat itxi? Ez, ez, ez... Iaz, Edward Snowden-ek NSA Segurtasun Nazionalako Agentziari buruz emandako zenbait informa-

Ingelesa

“Hemen, ikasleak, Haur Hezkuntzan bertan hasten dira ingelesa ikasten. Lehen

Hezkuntzara heldu eta ez dakite askorik. Ahoskera on xamarra dute, baina ez dira esaldi bat osatzeko gai.

Bigarren Hezkuntzara heldu eta bestelako koxka bat dute: gramatika ikasi behar dute, hizkuntza bera.

Beste maila bat da hori. Orduan, ahal duenak eskolaz kanpo ere ikasi behar izaten du ingelesa. Eskolan ikasten dutena ez da nahikoa eskolako planak eskatzen duena betetzeko ere! Nola moldatu behar dute?”.

zio argitaratu zuen *The Guardian* kazetak. Horrek burukomin bat baino gehiago ekarri zion egunkariari, zuzendaria parlamentura deitu zuten deklaratzera eta hau eta hura, baina egunkaria itxi? Pentsatu ere ez.

Zer irudi duzu Euskal Herriaz? Zer iruditzen zaizu herri hau?

Hau Euskal Herria da, horrela pentsatu izan dut beti. Duela urtebete, baten batek gaztelan hitz egiteko esan zidan: “Espainian bizi zara!”... [Harridurazko keinua egin du] Ez, hau ezberdina da. Adibidez, galestarrari, edo eskoziarrari, ezin diozu esan ingelesa dela, Ingalaterran bizi dela. “Erresuma Batua” erabili beharra duzu. Lagun bat dut galestarra. Ez du galeserarik hitz egiten, baina galestarra da, eta britainiarra. Ni, aldiz, ingelesa naiz, eta britainiarra. Euskal Herriaz galdetu didazu eta, iruditzen zait herri honen historiaren zati handi bat oso tristea dela. Batez ere, Espainiako Gerra Zibilaren ondoko garaia. Tragedia handia iruditzen zait. Gerra garaian ere, arrantzarako ontziak egokitu behar izan zituzten gerrakoak izateko! Oso tristea. Lehendakariak erbestera joan beharra, Francoren erregimena... Deabruaren erregimena! Uste dut herrialde zoragarria izango litzatekeela independentea balitz. Beharbada.

Hori da eta!

Horra Islandia, herrialde txikia, independentea, eta ez dabilta gaizki. Edo Eskozia, esku-
ra dute independentzia. Erreferendumean baiezkoak irabazten badu ere, monarkiari eutsiko diote, eta liberari, inork ez du-eta euroa nahi. Uste dut, oraintxe, eskoziarren %46 independentziaren alde dagoela. Emozionalki, alde daude. Praktikoki, ez dakit, ez naiz ziur. Harrigarri izango zait baiezkoak irabaztea, baina irabazten badu, primeran, aurrera! ■




Herri ekimenak bultzatzeko crowdfunding plataforma

Euskal Herriko lehenengo crowdfunding plataforma da Karena. Batik bat Euskal Herrian eta euskaraz sortutako egitasmoei bultzada ekonomikoa ematea du helburu, herritarrek borondatez egindako finantzazioaren bidez. Horrez gain, Euskal Herrian dauden hamarnaka auzolan proiektuei ikusgarritasuna emango dien sare soziala ere bada.

| LIDE HERNANDO |

LAGUN ARTEAN hasi zuten Karena Crowdfunding proiektua orain dela sei bat hilabete. “Krisi egoera hone-tan, hamaika proiektu ideia hutsean gelditzen ari dira aurrera ateratzeko diru-laguntzarik ez dutelako, eta arazo horri irtenbidea aurkitu nahi genion”, dio Ekain Martinez Lizarduikoak, proiektuaren sortzaileetako batek.



oraindik finantzazio eskasa duenean, arrautzaren karena (plazenta) txikia izango da. Diru eskaintza gehitu ahala handitzen joango da, 40 eguneko epean txita jaio arte. Proiektuak epe horretan eskatutako finantzazioa lortzen ez badu, arrautza frijitu agertuko da, eta dirua eskaini duten pertsonen euren kantitatea osorik itzuliko zaie.

Autofinantziaziorako plataforma

Bi atal ditu Karenaren webguneak. Crowdfunding (autofinantzazio) atalean, dirua behar duten proiektuek laguntza jaso ahal izango dute, erabiltzaileen borondatezko eskaintzaren bidez. “Euskara bultzatzen duten eta ikuspegi soziala duten proiektuei eman nahi diegu lehentasuna, baina bestelako proiektuek ere lekua eduki dezakete”, dio Unai Martinez Lizarduikoak.

Karenan egitasmoren bat argitaratu nahi duen orok erregistro formularioa bete behar du. Administrazioak formularioa jaso, aholkularitza lana egin eta onartu edo ez erabakiko du. Ostera, proiektu horrek epe bat du webgunean erabiltzaileei aurkeztuko dien ikus-entzunezko informazioa garatu dezan. Proiektua webgunean argitaratzean, 40 egun edukiko ditu behar duen finantzazioa jasotzeko. Haiek erabakiko dute zenbateko diru kopurua eskatu, eta herritarrak emandako kopuruaren arabera zein sari izango duen. “Sariak ez dute zertan materialak izan. Disko bat grabatzeko dirua eskatzen duen taldeak, adibidez, kontzertu baterako sarrera oparitu diezaioke dirua eman dionari”.

Txita jaiotzearekin sinbolizatu nahi izan dute proiektuen finantzazio fasea: proiektuak

Karenan, euskara bultzatzen duten eta ikuspegi soziala duten proiektuek dute lehentasuna. Ekimenaren sortzaileak, ezkerretik eskuinera: Ekain Martinez Lizarduikoa, Unai Martinez Lizarduikoa eta Txemi Valdecantos.

Auzolan proiektuen berri

Karenaren sortze prozesua parte-hartzailea izan zedin saiatu ziren hasieratik. Hala, hainbat eragileri proposamenak eskatu zizkieten, ahalik eta tresna eraginkorrena sortu asmoz. Auzolan proiektuei bultzada emango zien tresna gehitzea proposatu zieten, eta ideia ona iruditu zitzaion. “Webgunean, crowdfunding plataformaz gain, Oilategia atala ere badago. Bertan mapa bat aurki daiteke, Euskal Herriko auzolan proiektu askoren geolokalizazioa eta informazioa ematen duena. Webgunearen bisitariak hemengo auzolan proiektuen berri izango dute eta auzolan ekimen guztiek euren artean harremana garatu ahaliko dute, sinergiak ahalbidetuz”.

Hautagaiak azpi-atalean, izena eman duten auzolan proiektuetatik batek dirusaria irabaz dezan lagundu nahi dute Karenakoek. “Crowdfunding ataleko proiektuak finantzatu dituzten lagunek, mapan ageri den auzolan proiekturik gogokoena bozkatzeko aukera izango dute. Urte amaieran, bozka gehien jaso dituen auzolanak urtean proiektu guztiek lortutako finantzazioaren %1a jasoko du”. ■



EMAKUMEAK JAIETAN

Festa parekideak, lortu gabeko ametsa

Festak, jendartearen adierazpen diren heinean, egunerokoan ematen diren zapalkuntza eta diskriminazio sexisten isla ere badira. Eraso fisikoak, oharkabean geratzen diren beste hainbat egoeren muturreko adierazpenak dira. Festen eraldaketak, premiazkoa izanagatik, badu aurrean oztopo bat: tradizioaren pisua.

| ANDER PEREZ |

HONEZKERO itzaliko ziren San Joango suen errautsak. Piztu dira suziriak han-hemenka, eta hasiak dira lepo inguruan zapiak janzten euskal herritarrak. Festak dagoeneko hartu ditu gure geografiaren hainbat bazter, eta aurki hartuko ditu beste asko. Bat-batean, jaietan gaudela, mezu batek bortxaketa baten berri emanen du. Eta “jaietan sexismorik ez” pankarten atzean batuko da herritar andana. Baina aurretik, bitartean eta gerora ere izan da jaia sexista.

Eraso fisikoak beste hamaika zapalkuntzen alerik agerikoena, eta latzenak, dira. Antzera gertatzen da bereziki diskriminatzaileak diren festa hainbatekin, Irun eta Hondarribiko alardeak edo Baztangar mutil-dantza kasu. Arreta erakarri dute, eta erantzuna eragin, baina ez dira bakarrak. Parekidetasuna, oro har, jai eremuaren osotasunean erroto gabeko kontua da



oraindik. Hain zuzen ere, aipatutakoak “icebergaren punta” dira Maggie Bullen EHUKo gizarte antropologiako irakaslearen ustez; “horien azpian sistemaren oinarria dago”.

Sistema hori eguneroko jardunean agintzen duen genero-sistema bera da, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak bermatu eta betikotzen dituena. Eta jendartearen ematen dena, festa eremuan ere ematen da, Bullenen esanetan festa eremua jendartearen isla delako. Antzerako iritzia du Saioa Iraola Bilgune Feministako kideak ere: “Festak errealitatearen adierazle kondentsatuak dira. Herriaren nortasuna eta jendartearen egitura islatzen dute”. Beraz, egunerokoan bezainbeste eraso eta zapalkuntza ematen dira. Festek, ordea, are gehiago ikustarazten dute egoera. Eta ukimenduak, komentario sexistak eta antzekoak agerian geratzen dira.

Baina jaiek badute beste berezitasun bat. Aldarrikapenerako erakusleihoa izan ohi dira Euskal Herrian. Hala, herritarrek festa probestu izan dute agintea kritikatu edota bestelako ordenak irudikatze, horretarako parodia edo mozorroa erabiliz.

Horregatik, Bullenen ustez, festak jendartearen isla ematen du, baina “isla distortsionatu”. Izan ere, festan “ezarritako ordena irauli egiten da, gure eguneroko bizitzaren errutina aztoratzen dugu”. Paradoxikoa zera da: unean uneko agintea kritikatu dira, baina distortsio hori ez da baliatu genero-sistema ere iraultzeko. Genero ordena urratu zitekeen, baina aldiz, erreproduzitua izan da. Ezberdintasunak bere horretan mantendu dira, jendartearen gainerako eremuak imitatuz.

Aldi berean, ezarritako ordenari aurre egin eta festetan apurtzeko joera “denak balio du” mitoarekin nahasi izan da hainbat kasutan. Akaso Iruñeko Sanferminak dira horren adibiderik garbiena. Festa edozer egiteko aukera eskaintzen duen marko gisa aurkeztu izan da. Horrek, genero-sistema gehituta, koktel arriskutsua dakar. Koktel horren ondorio dira iaz egunkaritako azalak bete zituzten irudiak, gizon taldeak emakumeak ukitzen eta arropa kentzen erakusten zutenak. Iruñeko alkate Enrique Maiak “eraso” gisa kalifikatu nahi izan ez zituen horiek beraiek.

Oraindik ere, festen antolakuntzan, lan banaketan eta egitarauetan agerikoak dira gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak. Irudien egileak, goitik behera, ezker-eskuin: Larrabetzutik, Miciudadreal.es, iazko Sanferminetan kaleraturiko argazkia, Amurrioko Gazte Asanblada, Premine.hiru, eta Sangutxujai.

Goatzeko aukerak ez dira berdinak

Egun, emakume eta gizonetako ez dute festaz goatzeko aukera berdintasunik izaten. Iraolak irudi bat darabil egoera deskribatzeko: “Garbigailuak ez dabilta euren kabuz, ezta lapikoak ere”. Alegia, “festen sostengu diren ekintzak” emakumeen esku geratzen dira.

Ez da hori bakarrik. Plazetara begiratzea besterik ez dago, festen erdigunea nork okupatzen duen ikusteko. Zerrenda luzea du Iraolak: “Plazetan harri-jasotzaileak, aizkolariak, pilotariak, dultzaineroak, txarangak, kontzertuak, zezenak... izaten dira. Gizonak dira ekimen horien guztien protagonista, baita ikusle gehiengoa ere”.

Halako diskriminazioak, ordea, bigarren maila batean geratu dira. Jendarteak naturalizatu ditu, nonbait. Ez gaitu harritzen kontzertu

sorta batean, bata bestearen atzetik, gizonetako hutsez osatutako taldeak eszenatokian ikusteak. Ikusezin bihurtu diren egoerak dira; iceberga, berriro. Eguneroko adibideak ekarrita azaltzen du Bullenek egoera: “Ohituta gaudenez, ez dugu zapalkuntza egoerarik.

‘Normala’ iruditzen zaigu neskek gona janzea eta mutilek, berriz, ez. ‘Naturala’ ikusten dugu mutilak gihartsuak izatea eta neskak, aldiz, argalak. Tebistan ez digu arreta deitzen emakumeak diren aurkezleak begiak margotuta izateak eta gizonak ez. Eta ez dugu arraroa ikusten Munduko Kopak gizonetako betetzea gure pantailak, egunkariak eta elkarrizketak, egunak joan eta egunak etorri”.

Baina aurreko adibideetan bezala, festetan ematen diren diskriminazio egoerak ez dira normalak, eraikitako genero-sistemaren ondorio baizik. Iraolak dioenez, festek “jendarte ordena erreproduzitzen dute, eta hegemonikoak diren gizon eta emakumeen irudiak indartzen dituzte”.

Parodia edo mozorro bidez, unean uneko agintea kritikatu dira festetan, baina distortsio hori ez da baliatu genero-sistema iraultzeko

ellauri HOTELA

KILO TERDI TXOKOA
Kilo t'erdiko txuleta
Legatz-solomoa plantxan
(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellauri.com

Natura sentitu

EMAKUMEAK JAIETAN

Dena dela, ez da guztia horrelako panorama beltza. Iraolak jakinarazi duenez, mugimendu feminista hainbat jai batzorde eta antolatzaileekin lanean dabil jaiak errotik aldatzeko. Berak dioenez, “jaiak parte-hartzaileago eta parekideago egiteko saiakera ez baita soilik feministon ardura, festen antolatzailer eta herritar ororena baizik”.

Iruñean, bide bertsutik, autodefentsa feministarako tailerrak antolatu dituzte Gora Iruñea! jai herrikoien aldeko plataformak eta Indarkeria Sexistaren Aurkako Emakumeen Plataformak, emakumeek euren burua defendatzen balizko erasoan aurrean. Hiru tailer antolatu zituzten hasiera batean, baina bost eskaini behar izan dituzte azkenean, eskaera ikusita. Orotara ehun emakumek baino gehiagok parte hartu dute. Kopuruak emakumeen kezka eta beldurra adierazten du, baina Idoia Arraiza autodefentsa feministan aditu eta tailer emailearen ustez, badu bere alde positiboa: “Emakume hauek euren etxetan gera zitezkeen, kalera irtetera ausartu gabe beldurraren menpe. Baina ezetz erabaki dute, eta pauso bat eman, ausardiaz betetako pausoa gainera”. Tailerretan, kontzientziazioan, erasoan identifikazioan eta batez ere, emakumeen autoestimuan jarri dute indarra.

Tradizioaren zama

Edonola, Arraizak, Iraolaren gisara, emakumeengandik haragoko inplikazioa behar dela uste du, “guztion ardura baita” jaiak eraldatzea. Baina jai eraldatzeak tradizioa eraldatzea dakar. Eta gaur egun, oraindik ere, pisutsua da tradizioaren zama.

Bullenek onartzen du “zaila dela maite ditugun gauzak aldatzea”. Izan ere, bere ustez tradizioak “gure bizipenetan sartuta daude, emozioekin lotuta eta oroitzapenekin uztartuta”. Bide beretik, “aldaketen beldur” garelako” uste du Iraolak.

Edonola ere, biek dute argi tradizio oro aldagarria dela. Are gehiago, aldaketa tradizioaren berezko elementua dela uste dute. Bullenen hitzetan, “tradizioek aldagarriak direlako irauten dute. Bestela desagertu egingo liriteke eta museoan geratu”. Eta horretaz kontziente izatea berebizikotzat jotzen du, jaiak aldatu nahi badira: “Tradizioak gizakiok asmatutakoak dira”.

“Zaila da maite ditugun gauzak aldatzea. Tradizioak gure bizipenetan sartuta daude, emozioekin lotuta eta oroitzapenekin uztartuta”

Maggie Bullen, antropologoa

Festa dezagun gaurdanik geroa dokumentala kaleratu du Euskal Herriko Bilgune Feministak. Emakumeen parte-hartzeari buruzko gogoeta feministatik abiatuta.



Era berean, Iraolak dio “tradizioa zerbait monolitiko gisa ulertzen badugu ere, tradizioa une jakin batean sortutako ekintza dela”, eta beraz, testuinguru eta garai jakin bateko balore eta sinesmenen arabera sortutakoa. Tradizioa, hortaz, eraikia da, eta eraikia den oro deseraiki daiteke, eta beste era batera berreraiki.

Bullenentzat bada arestian aipatutakoa erakusten duen adibide bat: “Antzuolako Mairuaren Alardeko elkarteak kezkatuta zegoen, gazteen erreleborik ez zegoelako eta desagertzeko arriskuan ikusten zutelako. Horrez gain, Mairuaren papera desfaturatuta zegoen eta kritika batzuk jasotzen hasi ziren. Egoera horri aurre egiteko diagnostiko bat enkargatu zuten, eta horren emaitza nagusietakoa izan zen antzezten ari zen historia ez zela batere egiazkoa, asmatua baizik. Herritarrek egiazkoa ez zela ulertu zutenean, aldaketak egiteko aske sentitu ziren, arbasoek asmatutako historia hori gaur egungo errealitatearekin egokitzeke.” Hala, alardea berrituta, bere biziraupena bermatu zuten.

Jaiak ere, biziraupena berma dadin, eta parte diren guztien erosotasuna eta berdintasuneko parte-hartzea eduki dezaten, aldatu behar izanen dute. Antolatzaileetatik hasita azken herritarren, “festen prestaketa eta garapena bera prozesu kontziente bilakatu behar da”, Iraolaren hitzetan. Egitarauak tentuz aukeratu, lan banaketa ziurtatu eta erasoak saihestea premiazko kontuak izanen dira, jai parekideak lortzeko bidean.

Izan ere, jaiak badu berezko potentzial handi bat, urrezko balioa: “Jendarte kohesioarekin lotuta daude”, Bullenen hitzetan. Eta jendartearen benetako kohesioa ezinezkoa da biztanleriaren erdia baztertuta. Bestetik, “festek identitate kolektiboa birsortzen dute, kanpora ‘horrelakoak gara gu’ esanez”. Eta hortaz, jendarte osoa eta festak aldatzen ez diren heinean, “jendarte sexistak gara” esaten jarraituko dugu. Kanpokoei eta bertakoei. ■



LOMCE

Irailetik aurrera Konstituzioa ikasgai?

Irailetik aurrera, EAEko ikastetxeetan LOMCEren atal batzuk martxan jartzea onartu du Eusko Jaurlaritzak. Lehen Hezkuntzari eragingo dio erabakiak eta hiru ondorio izango ditu: Ingurumenaren Ezagutza ikasgaia bitan banatuko da, 3. mailan kanpo-azterketa egingo zaie ikasleei –nahiz eta emaitza ez den kontuan hartuko ikasturtea gainditzeko–, eta Erljioa hautatzen ez dutenentzat ordezeko ikasgai puntuagarria ezarriko da: Balore Sozial eta Hiritarrak.


| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

ZERTAN DATZA Balore Sozial eta Hiritarrak? Espainiako Gobernuak ikasgai honetan finkaturiko curriculumean irakur daitekeenez, 9 urteko haurrari gizalegez jokatzea eskatzen zaio bereziki, egunerokoan modu baketsuan har dezala parte gizartean eta inguruaren ongizatean, eta arauak errespetatzea zein garrantzitsua den azpimarratzen da behin eta berriz. Baina zer da “gizalegez jokatzea” eta zeintzuk dira “errespetatu beharreko arauak”? Curriculumak argi uzten du zein balore eta araurak jarraitu behar duten haurrek: “Gizarteak onartuak dituen baloreak”; eta argiago: “Espainiako Konstituzioaren baloreak”.

“Konstituzioaren balore, eskubide eta betebeharren arabera jarraitu behar da helburua; balore, eskubide eta betebeharrak horiek “ezagutzea” eta, are gehiago, “estimatzeta”. Haur bakoitzak bere balore sistema eraiki behar duela ere badiu, baina hori bai, balore sistema horrek “Espainiako Konstituzioaren eskubide eta betebeharrak oinarritu” egon behar duela.

Ikasgai honen segida den eta EAEn –oraingoz– ezarri ez den Balore Etikoko ikasgaia urrunago doa. Bigarren Hezkuntzako haurrei dago zuzendua eta besteak beste desobediencia zibila eta kontzientzia-objektioa mespretxatzen ditu, armada eta honen ekarpenaren garrantzia “estimuan” hartu behar direla dio, eta zenbait aurrerapen zientifikoren “arriskuaz” ohartarazten du: ama zelulak, klonazioa, eutanasia edota eugenesia.

Nabarmentzekoa da, LOMCEren aginduz bai Erljioa eta bai Balore Sozial eta Hiritarrak ebaluatu egingo direla, eta bigarren hori ikasiko dutela haur gehienek EAEn, %30 inguruk



Ikusteke dago zenbaterainoko malgutasuna onartuko den EAEn, Balore Sozial eta Hiritarrak ikasgai Madrildik zehaztutako hainbat punturi ihes egiteko.

baino ez duelako hautatzen Erljioa Lehen Hezkuntzan –orain arte, Erljioa hautatzen ez zutenek gainerako ikaslanetan aritzeko aprobetxatzen zuten denbora hori–.

Nola egokituko da ikasgaia EAEko ikastetxeetan?

Kontua da, Eusko Jaurlaritzak ez duela onartu ez dekreturik ez curriculumik ikasgai polemikoa hezkuntza publikoan nola txertatuko den zehaztuz, eta hortaz, ez dago gidalibururik. Tutoreen esku utziko da ikasgaia, “Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak markaturiko edukien arabera”, adierazi du Cristina Uriarte sailburuak. Hezkuntza sailak zein eduki markatuko dituen, zenbateraino jarraituko duten Espainiako Gobernuak agindurikoa eta zenbaterainoko malgutasuna onartuko den Madrildik zehaztutako hainbat irizpide eta punturi ihes egiteko, oraindik ez dakigu.

Dena ez baita arbuigarria ikasgai honetan. Emakume eta gizonen arteko eskubide berdintasunaz mintzo da, baita sexu, arraza, erlijio edo irizpideen inor ez diskriminatzeaz ere, eta ingurumena zaintzearen (eta energia alferrik ez kontsumitzearen) beharraz.

Albiste gogor kritikatu du EHIGE gurasoen elkarteak, eta Uriartek argudiatu du legearen zati batzuk onartzea eta, nolabait esatearren, hurrengo urtean EAerako LOMCE urardotua baimentzea “sistemaren eta ikasleriaren onerako” izan dela, “ikasleek ikasturtea amaitzeko arazorik izan ez dezaten”. Nafarroan, errazago egingo du bidea Wertzen hezkuntza erreformak, jakin baitakigu UPNk begi onez ikusten duela. ■





DANI BLANCO

Mikel Zurbano

EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Zorraren zama eraman ezina

EUROPAR BATASUNeko hazkundearen azken datuak (%0,2) eta inflazioarenak (%0,5) alarma gorriak piztu dituzte Europako Banku Zentralean (EBZ). Horregatik hartu ditu ekainaren hasieran bi neurri indartsu: interes tasa ofiziala gehiago jaistea (%0,15 historikora) eta Europako ekonomian likidezia txertatzea (500.000 milioi euro, inoizko emaririk handiena). Bada, diru hedapen erraldoi horren onura hutsaren hurrengoa izango da. Izan ere, Europako hegoaldeko ekonomia egoera aldatzea ezinezkoa da, baldin eta diru hedapen hori zorraren berregituraketa eta kitapenarekin zein zerga politika hedatzailerekin osatzen ez bada.

Europako hegoaldeko kontsumitzailerik zein enpresek behar duten finantzazioaren arazoa ez datza likidezia faltan, baizik eta ekonomia osoaren kaudimen

garaia eta kapitalizazio arazo larriekin batera. Horrela kredituak errazteko pizgarri gutxi daukate eta are gutxiago kaudimen nahikoa duen kredituaren eskaria oso apala den honetan. Aipatzekoa da, enpresetako zorra hain indartsua dela, ezen eta NDF (IMF) berak aitortu duen enpresa txiki eta ertainetako zorraren berregituraketa ordenatua beharrezkoa dela epe laburrean.

Europar troikak indarrean jarritako politiken *mix*-a antzua da. James Tobin Nobel saridunak aspaldian baieztatu zuen, ekonomiek ezin dutela aurrera egin alde batetik diruak eta prezioak hartzen baditugu, eta bestetik, guztiz aparte, aurrekontuak, zergak eta produkzioa. Bi aldeon arteko zuloa handitu egin du troikak Europan. Diru politika hedakorria izan arren, horrek epe laburrean ekonomian eta enpleguan izan dezakeen onura ezeztatua geratzen da zerga politika murrizkorra denean eta zorra handitzen jarraitzen duenean, Europako hegoaldean gertatzen den gisa. Funtsean, hazkunderik gabe eta desneplegu maila erraldoiarekin zor pribatuaren ordainketa ezinezkoa egiten da. Adibidez, Espainiako Estatuan hori egin nahi izateak desberdintasun sozialen hedapen bizkorra dakar krisi garaian, Europako Batasuneko bizkorrena ELGA (OECD) erakundearen arabera.

EBZren likidezia gehiagorako neurri hori burbuila berri baten iragarpena izan daiteke. Europako hegoaldeko estaturen baten kaudimeneko baldintzak are gehiago narriatzen direnean suerta liteke burbuila berriaren leherketa eta horren arriskuak diru erakundeak berak ohartarazten du. Ekonomia likideziaz hornitzeak eta, aldi berean, zerga politika murrizkorra eta hegoaldeko zorra bere horretan mantentzeak ez du ez hanka ez bururik. Frantziaren gastu eta inbertsio publikoaren murrizketa indartsuaren iragarpenak eta troikak Espainiari zeharkako zergak igotzeko eta soldadak are gehiago jaisteko aginduak okerreko bidea erakusten dute. ■

Europar troikak indarrean jarritako politiken mix-a antzua da. James Tobin nobel saridunak aspaldian baieztatu zuen, ekonomiek ezin dutela aurrera egin alde batetik diruak eta prezioak hartzen baditugu eta bestetik, guztiz aparte, aurrekontuak, zergak eta produkzioa

ezean. Enpresek finantzazioa eskuratzea baino nahiago dute zorra kitatu, eta eskari arazoak dituzten enpresek bezeroek sarreak handitzea nahi dute haien gastua igo dadin. EBZk Europako bankuei diru gehiago luzatuta ez duela ekonomia piztuko aurreikus daiteke, lehenik ere bide hori jorratu baita, neurri apalagoan izan arren. Gainera, Mario Draghik berak –EBZren buruak– banketxeen balantzeak oraindik oso desorekatuak daudela aitortu berri du. Beraz, egoera horretan likidezia nahiko izan arren, banku pribatuek ez dute krediturik erraztuko Europako ekonomiak behar duen kopuruan eta interes tasan. Aldiz, zor publikoaren eragiketak eta beren barne horniketak lehenesten jarraituko dute oraindik ere. Jakina da banku pribatuek oraindik ere aktibo kutsakor ugari dituztela, berankortasun







JOSU SANTESTEBAN

Jon Alonso

ITZULTZAILEA ♦

Zerbait aldatuko bada

KRISI HONEK ekarri duen ideietako bat haxe izan da: jendearen %1ek beste %99ren bizimoduak eta destinoak menderatzen ditu. Gutxiengo barregarriro txiki baten mende bizi gara; ondorioz, ez da hain zaila izan behar gauza iraulkatzea, hain gutxi badira.

Idea ongi dago, indartsua delako, baina aldi berean erabat faltsua da, gizarteko alor guztietan boterea egitura piramidal baten arabera antolatuta dagoelako; alegia, baliteke goiko erpinean munduko biztanleen %1 bakarrik egotea, baina bigarren mailadian dagokeen, demagun, %3, %1 hori bezain egoeraren erantzulea da, eta %1 horren ia maila berean dastatzen ditu boterearen abantailak. Piramidean mailadi bat behe-rantz egiten dugunero, bertan daudenen ehunekoa emendatzen doa, eta erantzukizuna eta botere-maila apaltzen. Piramidearen zer mailatan hasten da jasanezina izaten goiko egituraren pisua? Populazioaren zer ehunekok eusten dio?

Krisiak utzi digun beste ideia bat, kontrakoa, beste hau da: bai, dena oso gaizki dago, baina... ezin daiteke ezer egin. Hau etengabe errepikatu da, ez gutxitan modu interesatuan; alegia, “ezin daiteke ezer egin” esan, eta ondoren, beren kautan, “eta beharrik!” gaineratuz; oso jatorrak direlako, jatorrismoak beren interesak zipitzik ere kaltetzen ez baditu, noski.

Gehienok lehenengo ideiak sortu amorruren eta bigarrenak ernatu etsipenaren artean ibili gara eta gabil-tza, noraezean, egoerak merezi bezalako erantzuna asmatu ezinik. Horregatik, hilabete batzuk pasatu direnean, atzera begira jarri eta are txalogarriagoa iruditzen zait Idoia Nieves Nafarroako Ogasun Departamentu-

ko zuzendari ohiaren jokabidea: asko jarri zuen beretik, zintzotasunaren alde, ezer espero gabe. Bere eskuzabaltasunak gober-nua kolokan eta errealitatea benetan nola-koa den agerian jarri zuen, eta nork daki, erabakigarria izan daiteke oraindik ere, ter-mino politikoetan, bere ekarpena. Momen-tuz, baina, hala jokatzekak disgustuak baizik ez zizkion ekarriko, hain segur.

Nafarroako Ogasun Departamentuko zuzendari izateak piramideko zer mailatan jartzen zaituen, nik ez dakit; erpinetik hur-bilago oinarritik baino, noski, baina ez hain goitik ere. Baikortasunetik bezala ezkorta-sunetik ihes egin nahian, iruditzen zait, piramidearen oinarritzko mailetako jendea-

ren gehiengoa alde egongo dela jorik, maila ertainetako jende-kopuru esanguratsu batek aski da esaten ez duen arte, ez dela ezer aldatzen hasiko, ez hemen eta ez inon.

Eta horretarako inplikazio pertsonala ezinbestekoa da. ■

Atzera begira jarri eta are txalogarriagoa iruditzen zait Idoia Nieves Nafarroako Ogasun Departamentuko zuzendari ohiaren jokabidea



DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Milioi zakuak

JAINKOAK DAKI alta zango-baloia zenbat maite dudan. Herriko eskolako aterpean ari nintzen, pilotan besainkaz bezainbat, Uhane eta Kaskiletako mutil-neskekin oihalezko birla bat erramutzearen maldara bulkatzen. Garai heroikoak ziren. Diru premia larririk ez zen aipatzen. Ez genuen nehoiz futbol partidu bat telebistan ikusi. Telebistarik ez geneukan.

Karim! Begira, Karim!

Maracana kirol-zelai berrituan azaltzen dira jada fama ozeneko milioi zakuak spon-sorren izenez perdukatu borobilaren atzetik ernatzen. Euskal Herrian bertan bakoitzak badu sostengatzen duen taldea: urdinak ala

gorriak, mugaren zein aldetan kausitzen garen. Mende erdia lanean zinpurtuz ere irabaziko ez genukeen sosa hilabetean sakele-ratzen duten jokolariek kontrastea sortzen dute alorretara jalgitzen diren oroz: inguru-ko miseria, pobrezia baino gehiago dena, uzten dute agerian min zakar eta isildua bai-litzan.

Messi! Begira, Messi!

Brasileko taldea jarraitzen dut, Rioko favella likitsetan bizitzen diren anitzen antzera. Hargatik eska-tu lezake Christine Angot idazle entzutetsuak: Zergatik Brasil?

Neymar! Begira, Neymar! ■



BERTSO BERRIAK

Oroitza soil bat

I

Pare bat urte pasa ondotik
sentipenekin borrokan,
berriz burua altxatu eta
pasa zaidana gogotan,
iraganeko mamuei aurre
egin nahi diedan hontan,
ispiluari begira jarri
eta hasi naiz bertsoan,
oroitzapenak nire parean
lurrunarazi asmotan.

II

Hogeita zortzi urte nituen,
baina oraindik “umea”.
Zure iritziz, heldu omen zen
alde egiteko unea.
Tamalez, ez zen “agur” bat edo
“gero arte” bat xumea.
Nahiz ta denboran itzaltzen joan den
orduko begirunea,
urrundik ere nabarmena da
utzitako hutsunea.

III

Noski, nik ere badut errurik;
hau, aitor dezaket lasai.
Gure harremana indarra galduz
zihoan garairik garai.
Zetorkidanaz ohartarazten
saiatu zinen, nolana.
Behar zintudan, ta behar hori
bazen bat itsutzeko gai;
Zuk argi utzi zenidan baina
nik ez nuen sinetsi nahi.

IV

Bizitza zure babesik gabe
ez nezakeen imajina.
Gainera erru-sentimendua
hain zen barneraezina...!
Jende aurrean izan zintezan
ederra ta atsegina,
auniztan mugak jarri nizkizun
(halabeharrez, jakina).
Ez nuen uste izango zenik
ospa egiteko adina.

Julen Zelaieta



Doinua:
Esperantzarik gabeko zenbait.



V

Nire eskuak buru gainera
bota nituen orduan,
laguntzeko prest agertu zenik
izan nuen inguruan.
Baina guztiak ez zitzaizkidan
hurbiltzen lagun moduan;
mespretxatua sentitu nintzen
hilabeteen buruan;
ikasi nuen jende gaiztoa
ere badela munduan.

VI

Denek zekiten ze pasatu zen
zu eta nire artean.
Bazirudien kartel handi bat
nuela goiko partean.
Frakasatuak, bigarren mailan
gaude gaurko gizartean.
Behin eta berri erran zenidan,
ni lasaitu bitartean,
ta sinesten dut, hirugarrenik
ez zegoela tartean.

VII

Zergatik niri, zergatik orain...
zenbat duda nirekiko;
kezkak, beldurrak ta konplejuak
malkotan nituen ito.
Aitak auniztan erraten zidan:
“seme, deus ez da betiko”.
Kosta zait baina, onartu baitut
ez zarela itzuliko,
pena pixka bat badaukat baina
ez naiz negarrez hasiko.

VIII

Baina urtetan bizitakoak
orainik pentsamendutan.
Gelan, tabernan, parkean, dendan...
ia edozein lekutan,
zu ferekatzen zintudan eta
kilikak behatzen puntan!
Pentsatze hutsez, beheraldiak
izaten ditut batzutan,
faltan botatzen zaitudalako
horrelako momentutan.

IX

Zorion bila, barruko mina
hustutzearen arira,
denbora bere lana eginez,
gaitza sendatzen ari da.
Hala ere, zu guztiz a(ha)nztea
ezinezkoa da tira!
Zuk hemen utzi ninduzun baina
jarriz atzera begira,
zure inguruan zebiltzan batzuk
nirekin gelditu dira.

X

Zainduko ditut beraiek ere
ez dezaten egin alde
(momentuz ez da inor kezatu,
nirekin gustora daude).
Bizitza berez ederra da ta,
bertan dudaren jabe,
alferrik nago triste, beldurrez,
ezkor, uzkur ta herabe,
ni le(he)ngo bera izango bait naiz
zurekin edo zu gabe.

XI

Oroitza soil bat zara niretzat
agur “flekillo” maitea,
ziklo berri bat hastear dela
onartu eta pakea!
Ez dut berriro ere utziko
ohea ilez betea,
ez dut le(he)n bezain sarri aldatu
beharko txanpu-potea...
azken finean, ez da drama bat
burusoila izatea!

Berako Udalak eta bertso-eskolak antolatutako Baztan-Bidasoako XXVII. Bertso-paper lehiaketan sariduna.

«Galiziak lozorro historikotik atera gabe jarraitzen du»

Egile gurean ezezagunen liburu txukunak euskarari ekartzeko ekinean, mendebaldera begira jarri da Pasazaite argitaletxea. Eta aurkeztu digun alerik berriena da *Post-it bizitzak*, Iolanda Zúñiga galiziarrarena (Vigo, 1975). Iñigo Roque Eguzkitzak itzuli ditu 46 narrazio laburrok, berdin dutenak gordinetik zein amorrutik.

| ARITZ GALARRAGA |
Argazkiak: Pelu Vidal

Mundu mailako merkatura saltoa akaso ez, baina zer esanahi du zuretzat euskarara itzulia izanak? Anekdotak sinpatiko bat baino zerbait gehiago?

Xabier Queiruga Pasazaiteko editorearen proposamenak hunkitu egin ninduen, batez ere zentzu atabiko batean. Itzulpen hau “etxera” bueltatzeko modu sinboliko bat da, ezagutzen ez dudana baina amaren abizenean presente dagoen jatorri horretara. Liburua ireki eta ezin izango dut dezifratu; estrañioa izango da, baina aldi berean gertukoa. Toki egitea kideko kulturetan, diferente izanagatik hurbileko diren horietan, posible da editore konprometitu eta burugogorrei esker, beren asmoarekin aurrera egiten dutelako merkatu editorialaren azken tentenziengandik urrun. Beren lana, sarri ez sobera agerikoa, ikusgarria da.

Euskaraz orain *Post-it bizitzak*, baina aurretik gaztelaniaz atera da, katalanez. Bidea egiten ari da. Zer aspirazio izan dezake egun galegoz idatzitako liburu batek?

Galegoz idatzitako liburu hori banpiroen arteko sexuaz jardungo duen trilogia bateko lehen alea bada, aspirazio handiak izan ditzake. Bromak aparte, asko dira Bierzoko muga gainditzeko duten liburuak, nahiz eta, beste aldean, hizkuntza inperialista batean idatzita-

ko liburu batek baino traba gehiago aurkitzen duten: exotikoa izanagatik, beti erakargarria ez den autore galegoaren etiketarekin joango dira, eta leku egin beharko dute babes handiago duten izenburu maremagnum baten erdian. Baina hortxe daude Manuel Rivas edota Suso de Toro, orain arte esandakoa zapuztera datozenak. Motiboa? Testu handiak idatzi dituzte.

“Nire sentitzeko modua beti izan da frenetikoak. Eta ezaugarri hori islatuta geratu zen istorio minimo hauetan”

Narrazio laburrak, askotarikoak, baina guztiak elkartzen dituzten hari batzuek josiak. Belaunaldi baten erretratua agian? Idazlearen ikusmen-eremuak harrapatzen zuenarena?

Hori da: nire ikusmen-eremuak harrapatu zuenaren erretratu heresia. Hamar urte bete ditu liburuak.

2004an, eta hilabete batzuek, nire latitude-luzera zehatzaren konstantzia utzi nuen bertan. Pertsonala, lokala, iraungikorra zena islatzea bilatzen nuen. Garai jakin baten alaba gisa, egokitu zaidan eldarnioa ulertzea nuen helburu. Testu atemporalekin luzaz iraun nahi izatea miresten dut, baina nire ekinean ez dago tamaina horretako anbizioirik (enbustetria honek izan dezake autokontsolamendutik, loria literarioa eskuratuko ez duen taldeko partaide naizen aldetik). Edozein kasutan, izan nintzen pertsona haren esentziak bere horretan dirau, lubaki diferentetan posizio



hartzera behartzen zaituzten azaleko gorabeherek moldatu arren. Ezinezkoa niretzat belaunaldi erretratu bat saiatzea.

Narraziootako prosa da, garaia bezala, abiada handikoa, frenetikoa, ahots goran errezzitatekoa, auskalo slam konpetizio batean.

Nire sentitzeko modua beti izan da frenetikoa. Eta ezaugarri hori islatuta geratu zen istorio minimo hauetan. Jatorri eta helburu zehatzik gabeko istorioak, elkarren arteko loturarik gabekoak, leherketa baten ondoko hondakinak nola, nire traumak erregistratu ahal izateko sortutakoak. Eta eskerrik asko loreagatik, baina slama talentu eta trebetasunarekin askatzen den ekuazioa da. Ausardiak kutsatuak, gauza serioa iruditzen zaizkidan torneoak dira, eta ahozkotasunera bueltatzen gaituzte. Slam autoktono bat dugu hemen: “A regueifa”.

46 narrazio labur. Izan zitezkeen 46 nobela? 46 film labur? Puntatxo baina ez dute erakusten. Edozein huskeria pasa daiteke oharkabea, edo abia dezake zibilizazio baten azkena eka-

“Galiziak lekurik ez duen utopia bat da lusofonia, gaiari buruzko sinposioak programatzearekin temetzen garen arren. Edo hori uste du mugatik hogeita hamar kilometrora bizi den Vigoko biztanle honek”.

rriko duen borroka. Handikeriak alde batera utzita, nahikoa da lehen behatzaile batek hartzea eta gero erakustea. Post-it batean sartuko litzatekeena idaztera mugatu nintzen, baina oinarri gisa har daitezkeen abisu labur eta urgentziatzeko horien atzean, akaso eraiki litezke eraikinak. Gertakari ñimiño batek gorde dezakeelako sugetzar gotor bat.

Post-it horietatik salto egin zenuen *Periferia* nobelatzarrera. 500 orrialde.

Udako maitasun dira kontakizun laburrak: pazientzia gutxikoak, lotsa gabekoak, arinak (forman, ez funtsean); ez dizute ezer exijitzen, prest daude edozertarako. Batek ase zaituenean, aspertu edo blokeatu, beste batera egiten duzu salto. Aldiz, etengabeko atentzioa eskatzen duen maitale kontentagaitza da nobela. Hasieratik kartzela. Itxiera kontziente eta ekidin ezina, hain da obsesiboa. Bi urtez beste dimentsio batean bizitzea ekarri zidan *Periferiak*. Inoiz literaturan pasa zaidan eta pasako zaidan gauzarik onena izan da; testu ez sobera ulertua izateaz aparte, eszentriko izateagatik.

Ez generoan bakarrik, salto egin zenuen Brasil aldera ere. Edo, galiziar batentzat, nobela Brasilen kokatzea ez da hainbesteko saltoa? Zer harreman duzue lurralde lusofonoekin?

Hizkuntzari dagokionez, lurralde aliatu batean egotea bezalakoa da. Gainontzeko guztiari dagokionez, Brasilek ez gaitu ezagutzen, ez gara bere interesekoak, ez gaitu behar. Eta irudipena daukat Portugal beti tratatu izan dugula penintsulako morroi gisara, eta horrek eragotzi egiten du *feed-back* natural bat ezartzea. Galiziak lekurik ez duen utopia bat da lusofonia, gaiari buruzko sinposioak programatzearekin temetzen garen arren. Edo hori uste du mugatik hogeita hamar kilometrora bizi den Vigoko biztanle honek.

Garai batean euskaldunok begiratzen genuen Galizia aldera, eta, hara, itzuli izan genituen Castela, Cunqueiro, Novoneyra. Orain tortikolia dugula ematen du, ekialderantz. Zerbait galtzen ari gara?

Gu Euskal Herritik galtzen ari garen gauza bera. Nola da posible deskonexio hau? Akaso geografia sasitsua DNAn geratu zaigu imandua; tartean dugu Kantabriar mendikatea, eta hori izan daiteke motiboa, 2.0 garai global honen erdian, auzokoei kasu ez egiteko. Galiziak, batetik, lozorro historikotik atera gabe jarraitzen du; eta, bestetik, lege orokorrari jarraitzen zaio: aldiriarekiko, masa kultura kontsumitzen du; etxeokorekiko, jai gastronomikoekin eta pelegrinazio turismoarekin dago itsutua. Tortikolia ez dugu ezagutu ere egiten.



“Zer kontsumitu behar dugun Mercamadrdek esaten digun arren, beste jatorri batzuetako produktuak eskatzearen ardura gurea da. Subjektu aktibo bilakatu behar dugu, haiek ez baitira zentroa, ez eta gainontzeko guztiak periferia ere”.

Orain bakarrik iristen zaigu Manuel Rivas, gutxixeago Suso de Toro, apenas Miguel Anxo Murado. Eta dena Madrilen eskala egin ondolik.

Eta hona iristen dira Bernardo Atxaga, Unai Elorriaga, Kirmen Uribe. Eta *Ocho apellidos vascos*. Mese-tatik dena hain bahetua iristeak Estatu honen benetako maila ematen digu. Zer kontsumitu behar dugun Mercamadrdek esaten digun arren, beste jatorri batzuetako produktuak eskatzearen ardura gurea da. Subjektu aktibo bilakatu behar dugu, haiek ez baitira zentroa, ez eta gainontzeko guztiak periferia ere.

Galegoz idatzitako literaturaren diagnosis egin beharko bazenu, nondik hasiko zinateke? Zeintzuk dira aje nagusiak?

Emakume ejertzito bat nabarmentzen da poesian. Gizonak gailentzen dira narratiban, zeina, neurri handi batean, kazetaritzatik ontzen ari den. Banderadunak gara haur eta gazte literaturan. Are Sari Nazionalak ditugu dramaturgia, komiki, saiakeran. Talentuari eginiko laudorio horren ostean dator desen-kantua: gure sistema literarioa mantentzeko irakurlerik ez dugu. Bi faktoreren erruz: bat, ikus-entzunezko edukiak nagusitzen diren garai batean bizi gara, digestio errazagokoak

“Edozein huskeria pasa daiteke oharkabean, edo abia dezake zibilizazio baten azkena ekarriko duen borroka”

direnak; eta bi, guraso eta irakasleen interes gabezia nabarmena da. Ezagutu ditut liburu baten kontrazala irakurtzen duten irakasleak, gero ikasleei liburu guztiaren irakurketa ebaluatzeko. Eta hezkuntzan eraikitzen da gizartea.

Literaturatik kanpo ere sortzen dira proiektu interesgarriak, Praza Pública, Luzes, Galiza Ano Cero.

Proiektu tatxarik gabeak, edukiari nahiz aurkezpenari dagokionez, zeinetan dauden herri honetako burmuinik argienetako batzuk. Profesional apartak, herria hobetzeko kulturarekin lan egin beharrean Europako Banku Zentrala nola hustu pentsatzen egongo balira, lortuko luketenak. Arazoa da pertsona zintzoak diruditela.

Xerais sariketa irabazi zenuen *Periferiarekin*. Elkarrizketa batean aipatu zenuen denbora zela sariketarekin irabazten zenuen lehen gauza. Idazteko denbora. Ari zara?

Hori izan nuen lehen helburua. Eta azkenaurrekoa, espero dut. Diruaren zati bat gastatu nuen bidaiatzen. Gero, itzuli nintzen istorio fresko batekin PCaren pantailara, baina abandonatu nuen. Gertatzen da bizitza ez dela egitea pentsatzen duzun hori, ateratzen dena baizik. Eta gaingitu beharreko beste bataila batzuk atera ziren, idatzi beharrekoaren paraleloan. Gaur egunean, nire lana da irautea ekonomikoki, eta, memoria daukadanetik,

emozionalki. Bost urtean behin idazten dut, kanpokoagandik deskonektatzea lortzen dudanean, istorio batean obsesionatzeraino.

Ez dakit haurrentzako ordutegian gauden, baina ekarri nahi dizut *O Divino Ferrete*, galegoz filmatutako lehen pelikula pornoa izan behar zena.

Beste burmuin pribilegiatu baten ideia izan zen: Alejandro Tobar, Hugin e Munin argitaletxeke editorearena. Hizkuntza eremu guztietan normalizatzea zen asmoa, eta horretarako pentsatu zuen egokia izango zela birjina zen sailetara eramatea, adibidez pornografiara. Curros Enrikezen *El Divino Sainete* urratu zuen, eta jende asko konbentzitu gintuen ontziratzeko. Tamalez, ez zidaten aktore pornoaren papera eman, eta esaldi batzuk idaztera mugatu nintzen. Proiektuaren lodiena porturatu ez bazen ere, garagardo batzuk hartu genituen, eta barre batzuk egin elkarrekin. Zer da literatura, ordea, kideko jendea ezagutu eta elkarrekin gin-tonic batzuk hartzea ez bada? ■



Finantzaketa egonkorraren bila, irauteko

Durangoko azokak arazo ekonomiko larriak zituela adierazi zuten Gerediaga elkarteok Eusko Legebiltzarrean, ekainaren hasieran. Diru-laguntza handitzeko erabakia urrira atzeratzeak kinkan jarri zuen azokaren egungo eredia. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuorde Joxean Muñozek bilerara deitu zuen ondoren, eta eskatu den guztia onartu ez duen arren, konponbiderako aurrerapausoa eman da. Mende erdia beteko duen honetan, eztabaida sortu du azokak: nori dagokio azokaren iraupena bermatzeko ardura?

| MYRIAM GARZIA |

GEREDIAGA ELKARTEAREN ESKAERA EH Bildukoen eskutik heldu zen Eusko Legebiltzarrean, ekainaren 13an. Ez legezko proposamen gisa, 70.000 euro gehiago tramitatzea zen helburua, lehendik azokari ematen zaien 80.000koaz gainera. PSE, PP eta EAJ alderdiak aurka zituela, proposamenak ez zuen aurrera egin, politikarien erabakia urrira arte atzeratu zen, eta azokako sustatzaileen artean argi gorri guztiak piztu ziren. Zer-nolako azoka antolatu, hilabete eta erdi lehenago arte jakingo ez bada zein diru jasoko den?

Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzako kultura sailburuorde Joxean Muñozek bilerara deitu zituen, ekainaren 24an. Luze jo zuen bilerak, eta besteak beste, 80.000 euroko diru-laguntza 120.000ra handituko zuela hitz eman zien Muñozek. Gainera, datozen urteetan kopuru hori handitzeko konpromisoa hartu zuen.

50 urte beteko dituen azoka

Eusko Legebiltzarrean gertatutakoak batik bat azokaren egungo eredia –salmenta postuetz gain, Saguganbara, Irudienea, K@bia, eta Ahotsenea hartzen ditu azokak beren baitan– jarri zuen ezbaian.

Gerediaga elkarteak Eusko Jaurlaritzatik ez ezik, enpresa pribatuetatik eta gainerako erakunde publikoetatik ere jasotzen du laguntza. Hain zuzen, 120.000 euroko kopuruaz, Bizkaiko Diputazioak ematen duena berdinduko du Eusko Jaurlaritzak. Gipuzkoako Diputazioak, berriz, 30.000 euro helarazten dizkio azokari, eta bertako komunikazio arduradun Argi Dorronsorok adierazi digu-



DANI BLANCO

nez, “gure konpromisoa diru-laguntza hori hurrengo urteetan mantentzea izango da”. Bestalde, litekeena da datozen egunetan Martin Garitanok ere Gerediaga elkarte bilerara deitzea. Arabako Diputazioak 1.500 euro besterik ez du ematen eta Nafarroako Gobernutik batere sosik ez da heltzen.

Joxean Muñozek azokaren izaera nazionala nabarmendu du, eta erakunde publiko guztien laguntza behar duela adierazi. “Bat gatoz kultura sailburuordearekin baina hori erakunde publiko guztien artean orekatu eta adostu beharra dago”, dio EH Bilduko legebiltzarkide Estitxu Breñasek. “Euskal Herri osotik etorritako jendea biltzen da Durangon, izaera

Nerea Mujika

Gerediaga elkarteko presidentea

«Egonkortasun ekonomikoak izugarri lagunduko luke»

Nola baloratuko zenuke Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordearekin izandako bilera?

Lan bilera berezia izan zen, gauzak bere lekuan jartzeko, eta batez ere, konponbideak bilatzeko balio izan zuena. Finantzaketari lotutako bilera izan zen; nor, zenbat, noiz galderei erantzuteko ahalegina. Alde horretatik, aurrepauso garrantzitsua eman zuen Jaurlaritzak, azokak 120.000 euro jasoko zuela hitz eman baitzitzaigun.

Nahikoa izango da azokaren egungo ereduari eusteko?

Azoka ez da erakunde bakar baten diru-laguntzaz egiten. Une honetan badakigu Bizkaiko Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak ehun eta hogeina mila euro emango dituztela. Momentuz, horiek izango dira azokaren laguntzaile nagusiak, baina bi erakunde horien ekarpena baino gehiago behar da azoka aurrera eramateko. Babesle pribatuak ere badira, eta horrez gain, standen alokairuak ematen duena, baina hori ez dugu jakingo iraila bukatu arte. Une honetan, beste erakunde batzuekin ari gara lanean, Gipuzkoako Diputazioarekin eta Arabako Diputazioarekin, esaterako. Durangoko udalarekin uztailaren 3an bilduko gara. Bermatuko den egungo eredu? Etxean bezala, kontu guztiak egin ondoren helduko da gure balorazio orokorra.



ANBOTO.ORG

Eusko Jaurlaritzarekin egindako bilera aurrerapausoa izan da, eskatzen genuen diru kopuru osoa heldu ez bada ere. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren erantzuna garaiz

heldu da, eta hori oso garrantzitsua da plangintzarako, ezin baita inprobisatzen aritu. Erakunde publikoek datozen urteetan azoka aurrekontuetan saritzeaz ere jardun genuen.

Erakunde publikoen finantzaketa egonkorra aspaldiko eskaera duzue.

Urtarriletik gabiltza erakundeak bisitatzen. Ordu asko eman ditugu guztiok honetan, puntatik punta ibili gara. Urtero horrela ibiltzea ezin du elkarte batek jasan.

Azoka bikaina antolatzearen ardura gure gain hartu eta denboraz aritzen gara, eta edozeini azalpenak emateko arazorik gabe. Egonkortasun ekonomikoak izugarri lagunduko luke azoka. Enpresa pribatuek euren kontuak egin behar dituzte, zenbateko ekarpena egingo duten esan aurretik, baina erakunde publikoek minimo batzuk bete behar dituztela uste dut. Kopuruak ziurtatu behar dizkigute urtero.

nazioala du, jakina, eta erakunde guztien arteko kofinantzaketa iruditzen zait logikoena. Baina hori azokaren aspaldiko eskaera da”, dio Gotzon Barandiaranek, orain arte Aho-tseneako kudeatzaile izan denak.

Badirudi, finantzaketa egonkorra eta erakunde publiko guztien arteko hitzarmena dela azoka kinka ekonomiko larritik ateratzeko modua, eta iraupena bermatuko liokeena.

Batzuen borondate politikoa agerian geratu da, eta horren ondorioz, EAJk deseroso ikusi du bere burua. Gerediaga elkartearen ustez, Durangoko Azokak ez du euskal erakundeetatik behar beste laguntza jasotzen, eta hauen arteko hitzarmena beharrezkotzat jo du, urte urte adostu behar izaten baitituzte erakunde publikoen diru-laguntzak, eta horrek izugarriko ezinegona eragiten du elkarteetan.

Dirudenez, azokak egungo ereduari eutsiko dio. Gotzon Barandiaranen aburuz, “erakunde publikoek derrigorrez lagundu behar dute azoka. Azpiegitura hobetu beharrean, baldintza okerragoetan ari gara eta”.

Eredua bera eztabaidagai

Eztabaidaren erdian, azokaren eredua bera izan du mintzagai Muñoz sailburuordeak. Bere ustez, azokaren ereduaren gainean gogoeta egin beharra dago. EH Bilduko Estitxu Breñas, aldiz, ez dago ados: “Sortzaileen guneen ereduarekin bat egiten dugu guk, azoka bera suspertu, aberastu eta herritar gehiago erakarri baititu. Ez dugu bere bideragarritasuna zalantzan jartzen, borondate eta erabaki politikoen kontua dela iruditzen zaigu. Azokaren finantzaketa ereduaren gainean egin behar da gogoeta, eta honen inguruan, EH Bilduk azokarako hitzarmena aldarrikatzen du, hots, finantzaketa egonkorra, Gerediagako eragileek eskatu bezala”.

Gotzon Barandiaranen ustez, “azokak dagoeneko badu eredua. Esan dezatela haiek zein eredu beharko lukeen, haien ustez. Eta, denon artean hitz egin behar badugu, hitz egin dezagun, baina azokaren ereduaz ez ezik, Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen dituen gainerako ereduez ere. Esan dezagun,

Joxean Muñoz

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordea

«Konpromiso serioa hartu dugu Durangoko Azokarekin»

Zein balorazio egingo zenuke Gerediagarekin izandako bileraz?

Azken egunotako ezinegonak garbi adierazi ditugu eta horrek beti laguntzen du ulermenean. Orain arte, Gerediagarekin izan dugun harremana ona izan da eta konfiantza hori berreskuratu da berriz ere. Gainera, bilerako gaietako bat, gure arteko harremana indartzea, sendotzea eta hurbiltzea izan da. Giro onean aritu gara.

Eskatutako guztia jasoko dute?

Aurrekoan esandakoa adierazi diet. Hau da, erakundeok, kasu honetan Eusko Jaurlaritzak, konpromiso serioa hartu behar dugula azokarekin, besteak beste egonkortasuna bermatzeko. Baina ez dugu uste erantzukizun hori geurea denik osoki. Aurtengo azokarako, Bizkaiko Diputazioaren ekarpena berdindu dugu [122.000 euro], eta hala, bi erakundeok izango gara azokaren babesle nagusiak. Horixe, aurtengo konpromisoa.

2015eko urtarriletik aurrera, hausnartu beharra dago, egonkortasuna nola eman azokari, eta etorkizuna nola bermatu. Bestetik, erantzukizuna erakundeen artean banatu beharko da. Ahalegin handia egiten ari gara, baina gainerako erakundeek ere saiatu beharko luketela uste dut, bakoitza dago-kion neurrian.

Erakunde publiko guztien arteko ahalegin hori adostu eta orekatu



beharra dago?

Prozesua Gerediagak gidatu beharko lukeela iruditzen zait, horrela egin du 50 urtez.

Erakunde publiko guztien adostasuna eta elkarlana bultzatzea ez ote da lan konplexua kultur elkarte batek bere gain hartzeko?

Dударик gabe, eta horregatik, alderdi politikoez eta erakundeek horren alde lan egin beharko dute. Erabaki batzuk premiazkoak dira baina horrek ez du esan nahi hausnartu behar ez denik. Premiazkoak dira aurtengo edizioari dagozkionak, eta horiek elkarteak berak bideratu behar ditu. Bestalde, 2015etik aurrera hausnarketa sakona egin behar dugu, erakundeek ekarpenak egonkortu egin behar direlako. Eta, nahi badute, guk badugu foro bat, Kultura Auzolanean. Aldiz, aurtengoak konpontzeko, Gerediagak egin beharko du gidaritza lana. Zaila izango zaiela? Nire ustez, erakun-

deokin ez dabilta borrokan. Bileran gauza asko bideratu ditugula esango nuke, eta gainerako erakundeekin ere berdintsu izan liteke.

Nola liteke Legebiltzarrean hartutako erabaki politiko batek euskal kulturaren erreferente nagusia kolokan jartzea?

Ez nago batere ados. Gerediagarekin hizketan ari ginen aurretik ere. Guk deituta, bilera egin genuen otsailean, eta zulo ekonomikoa bazela esan zitzaigun orduan. Eragozpenak eta kezkak zeintzuk ziren ere azaldu zitzaigun. Eusko Legebiltzarrean gertatutakoak ez du askorik lagundu, baina ez dut uste, halaber, han agertzeak kolokan jarri duenik ezer. Proiektua haiek ikusten duten moduan planteatu zuten, eta sintonia berean jartzea eskatu zuten, irtenbidea bilatzeko. Gurekin behintzat lortu dute sintonia, eta Bizkaiko Diputazioaren ekarpena berdinduta, nolabait sendotu dugu erakundeon parte-hartze handi bat.

Lanean jarraitu beharra dago, eta sektore guztiek azoka nola ikusten duten argitu. Baina ez dut uste kolokan egon denik. Dena den, oso proiektu gutxi ari dira gorantz, ekonomikoki hazten.

Azken finean, zein zen planteamendua? 2014an egin daiteke azoka egungo ereduari jarraiki? Guregatik bai. Horixe izan da bileraren ondorio nagusia.

adibidez, zergatik bideratzen diren 3,8 milioi euro Guggenheim museora urtero”.

Datua hor dago: Guggenheim museoak hartzen duen diruarekin 60 azoka egin daitezke. Barandiaranen ustez, “euskarazko kulturari apurrak baino ez zaizkio bideratzen”.

Aurten, 50 urte beteko ditu azokak, eta kili-kolo ageri da. Diru publikoekiko dependetziak ez dio onurarik ekarri azokari. “Kultura diru publikoari lotuta ikusten dugu askotan, baina hemen edozein enpresak jasotzen

du diru publikoa, baita kulturarekin zerikusirik ez dutenek ere. Kulturak gizarteari ekaritzen diona heziketa da, eta elkarbizitza, sormena, zioriontsuago izateko bidea... Balore asko ditu kulturak, baina ez zaigu hala denik iruditzen. Kultura beti da zigortuena, murrizketarik handienak arlo horri egiten zaizkio. Ekarpenean egiten duten kultur egitasmoak ganoraz lagundu behar dira”, azaldu du Breñasek. ■



Helduen Literatura

Lasai, ez da ezer gertatzen
 Ana Malagon
 Elkar, 2014



I'm a loser baby

ANA MALAGONEK idatzitako lehen liburu honetan mikroipuinak topatuko dituzu, orrialde laurden, heren edo erditik gutxitan pasako direnak. Narrazio labur gehienek bertsoen egitura dute, kolpea amaieran baitator. Kolpea diot, baina batzuetan ukabilkada izaten da, (ironiaz hornitutakoa zenbaitetan), irakurlea identifikatu daitekeelako bertan agertzen diren hainbat konturekin, batez ere, belaunaldia, jatorria eta klasea konpartitzen baditu egilearekin, erreferentzia eta bizipenak errepikatzen direlako (edo ez?) eta bizitza, heriotza, maitasuna eta gorrotoa bezalako gai unibertsalez diharduelako testuotan, eta bestetasunaz.

Ipuinotan, hitzaurrea idatzi dion Iban Zalduak dioen moduan, “bakardadearen koordinadak” agertzen dira, eta gehiago edo gutxiago, XXI. mendeko Mendebaldeko kulturako klase ertaineko biztanle zuriok inoiz izan dugun gaitza da hori; hurbila(goa) eta ezaguna(goa) zenbaitentzat, zenbaitetan. Hala ere, honekin batera, bizitz(e)ak eragiten duen minaren erradiografia egin eta ahots marjinal edo marjinatuen berri eman digula ere esango nuke nik.

“Isilune ozenak” agertzen zaizkigu liburuan, eta bakardadeari aurre egiteko trikimailuak kontatzen dizkigu eskuzabal. Zauriak ikusiko ditugu, zabalik edo sendatze bidean, minaren kudeaketa eguneroan. Bizitzaren aztarnekin batera heriotza ere izango da kukuka; hiltzaileek, suizidek eta hildakoek hitz egingo digute ipuin batzuetan, “bizitzeko gogo

biziz agurtu genuen heriotza” bezalakoak orriotara ekarriz.

Denboraren iragatea eta honen arrastoa dugu bertan, “orainaren berri ematen digun soinua” izango da iratzargailua, laneko leloa “atzorako egina egon behar du biharko den guztiak” eta iragana ahaztu edo “memoriaren bazterretan abandonatu” egiten dela irakurriko dugu. Ahantzuratik berreskuraturatuko artean familia eta haurtzaroa izango dira bi eremu emankor, adibidez, haur sasoiaren pairatutako bazterketa eta jasandako erasoak eta hauen justifikazioa “norbaiten karismaren menpe bizi behar dugulako beti”.

Izenburuan gezurra esaten digu egileak gu lasaitu nahian, gauza asko gertatzen dira eta liburuaren orrialde hauetan. Ez dira denek ikusi, entzun edo sumatu ditzaketen gauzak, eta hori izango da narra-tzailearen lana, guri haien berri ematea, ikusgarri egingo dituelako hango eta hemengo hirietan bizi den jende bakartiaren gorabeherak; ahotsa eta protagonismoa emango dielako lehen munduko jendarteko galtzaileei, haien odol, izerdi, heste eta dardarak paper gainean ipiniz eta kritika honen izenbururako erabili dugun 1990. hamarkadako kantu ezaguna (niri behintzat) burura ekarriz. ■

**Amaia
 Alvarez Uria**



Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
 Bizkaiko Foru Aldundia
 Diputación Foral de Bizkaia



Deserriko kantak
Eñaut Elorrieta
Elkar, 2013

Hautatutako deserri partikularra

JAKINTSU-ITXURA izateko bizarra luzatzen uztea dela irakur dezakegu Joseba Sarrionandiaren *Propostas para a definição do exílio* poeman. Eñaut Elorrieta gernikarra bizar luzearekin aurkeztu zaigu *Deserriko Kantak* bere bakarkako lan honetan. Itxura kontuetan murgildu beharrean ordea, barruko grinak arakatu eta emozioak gidatutako lur berrietan barneratu da. Mugei eta beldurrei aurre eginez, esperimentatzeko arriskuak bereganatu ditu, sorkuntza garaian gorputzak agindutako bultzadetan arreta jarritz. Hasiera batean abestiek izan zezaketen dimentsioaren aurrean askea izanda eta intuizioak gidatutako prozesuan sentitu duenaren arabera eraikitako diskoa egin du.

Naturaltasunez adierazten den ahotsak indarra hartzen du diskotako osoan. Ken Zazpi taldeko kide bezala ezagutzen dugun abeslariaren ahotsak tinbre atsegina du, xarmagarria oso. Afinazio zorrotza eta, batez ere, gustu handia. Abesteko duen berezko dohainarekin eta emozioak azalertzeko duen gaitasunarekin erraz iristen da entzulearengana.

Elkar argialetxearen eskutik kaleratu dituen hamar abestiak deserria dute gai nagusi. Abesti sakanak eta intimoak, xehetasunez beteak, zehaztasunez zainduak. Guztiek dute ukitu garaikidea eta *Brit pop* arekiko parekotasuna soinu eta efektu erakargarrietan antzeman daiteke. Kantu bakoitzaren lanketan nabarmena da moldaketei eskainitako garrantzia. Gernikarrak Txus Aranburu (pianoa, teklatuak, akordeoia eta programazioak) eta Ruben Caballero (gitarra akustikoa, elektrikoa, mandolina, xilofonoa eta programazioak) bezalako musikari onen laguntza izan du abestiak borobiltzeko orduan. Grabaketan (eta zuzenekoan) euskal zirkuituan ezaguna den Igor Telletxea beratarra izan du baterian, baita jazz estilolarri erratu den Hasier Oleaga ere.

Deserriko kantak bakarkako lan horri ordu asko eskaini dizkio Elorrietak. Lan osoaren perspektibaren erantzukizuna bere gain izan du eta lan neketsu horren ostean abesti arinagoak egiteko beharra azaldu badu ere, gauza berriei ekiteko gogoz da.



Gernikarraren aparteko ahotsak eta abestien moldaketek presentzia handia dute diskoan. Dena den, bereziki azpimarratuko nukeena hitzak dira, musikalari poesiak duen esentziak erabat goratu baitu abesti bakoitza. Deserriari buruzko disko kontzeptual honetan begirune handiz aukeratutako testuek indar eta protagonismo izugarria dute. Gaiak modu zabalean hitz egiten duten garai, leku eta kultura ugaritako autoreen testuak bildu ditu Elorrietak horretarako (Mario Benedetti, Joseba Sarrionandia, Gabriel Aresti...) Hautaketa horretan euskal idazleengomendioak eta aholkuak jaso ditu. Uxue Alberdi, Eider Rodriguez, Unai Elorriaga eta Harkaitz Canoren laguntzaz jasotako testuak malgutasunez eraldatuak izan dira gero, entzulearen interesa piztera bideratuak, beti ere hizkien arima mantenduz.

Deserriaz hitz egiten digu Eñaut Elorrietak; deserri soziopolitikoaz eta deserri emozionalaz. Lan honetan murgildu zenean bere deserriaren ertzak deskubritu zituela dio, bide honetan bere deserri partikularra zeharkatu duela, alegia. Arnasberritzeko aukera ikusi du eta abestiak eginez eta abestiak kantatuz, bizitzen eta bizitzan lagunduko dionaren aldeko apustua egin du. Ez du bizarrik utzi behar, beraz, jakintsu-itxura izateko. ■

Olatz Korta



Bihotzak dio... itzuli herrira

GI 631

Urretxu-Zumarragako
Herri Opera

Sortzaileak

Gorka Hermosa, Jon Plazaola
Edurne Iturbe, Jon Maia.

Non: Urretxuko Ederrena
frontoia (Gipuzkoa).

Noiz: 2014/06/21

HERRI OPERA edota Arte agerraldizat iragarri zuten *GI 631* ikuskizuna. Opera baino, kultur ondasuna izatea nahi zuten sortzaileek, eta halaxe antzeman ere. Sarreran aipatu sortzaileak baino gehiago izan dira, baita egileak ere. 600 herrikidek osatu dute *GI 631* ikusgarria.

Hainbat ezaugarrik bereizi egin dute Urretxu-Zumarraga eta itsasoa lotzen dituen *GI 631* delakoa, Urretxu-Zumarraga bereizten duen Urola ibaiaren ibian doana. Bi herriak batera aritzea *GI 631* operaren emaria da. Paradoxikoki bi herriok Urola Garaian izanda ere, Goierrikoak baitira euskarari dago-kionez.

GI 631 etorkizunetik (2383. urte-tik) heldutako ezohiko emaitza da: antzerkia, dantza, baleta, musika, argazkia, margoa eta bideoa nahasten dituen. Etorkizuna eta iragana bateratzen ditu, oraina bermatu aldera. Agerraldia antzezpenen bitartez sartzen gaitu (h)istori(o)an, munduaren ikuspegi futurista eskainiz: agertokitik nahiz publikoaren artetik mintzo diren aktoreak elkarri mokoka dihardute. Irimo edo Belokiko izan daitekeen gurutzea sinbolo nagusi harturik, Jainkoa dute hizpide: *Carta puebla* edo Hiri gutuna lapurtu dute... Nazio handiek (NH) nazio txikiak edo erresistentziakoak (R) menpe hartu dituzte. Apokalipsiari aurre egiten dioten erresistente zenbakidunak ezarritako ordenaren aurka gogor ari dira. Bahituak eta xantaiatuak izan arren,



MIKEL ASURMENDI

***GI 631* Gernikako Arbola plazan iragarrita zegoen, baina ekaitzaren mehatxuak Ederrena frontoira aldarazi zuen. (Operazaleak Iparragirre bardoaren begipean).**

izaki zenbakidun eta pastillaz elikatu izateari muzin egiten diote irmoki. Ez dute nahi ere errepidearen zenbaki soila izan. Berbarako, Antzuola herria horren hurbil izan arren, urrunago egon da iraganean urretxuar-zumarragarrengandik Zumaia baino. Iparragirre Bardoak etorkizunetik heldu diren 2014 eta 281 zenbakidun erresistenteak antzuolartzat hartzea adierazgarria izan zen.

Bien bitartean, mundu zaharretik mundu berrira, mendez mende, jendez jende, heldu den herri baten gogoia agertu dute artistek. Iraganeko Arabaolaza, Iparragirre, Belastegi, Busca Sagastizabal edota Esnaolaren emaitzak errekaostak Urola ibaira nola, isurarazi dituzte egungo kantari, musikari, dantzari hala nola irudigileek Ederrena agertokian (bidenabar, Hermosa ederki ezkutatu zen Ederrenean).

Hermosa, Plazaola, Maia, Iturbe, Rivas, Goenaga, Azkarate, Sudupe, Agirrebaltzategi, Maroto, Aranguren, Apaolaza, Benitez, Aparicio edota Escudero dira. Ez dira aritu

direnen izen guztiak, ezta gutxiagorik ere. Ez da 600 lagun emaitza soilik ezta zenbait talderena ere. Herritarren inplikazioa zabala da. Adierazgarria da, Irrintzi eta Lurra dantza taldeak ekimen berean ikustea, baita musika klasikoa, popa, teknoa edota rockaz herri opera osatzea ere.

GI 631 Gernikako Arbola plazan iragarrita zegoen, baina ekaitzaren mehatxuak Ederrena frontoira aldarazi zuen azken unean. Eta hara, ekitaldi bakarra beharrez, bi eman zituzten egileek.

Oroitzapen bat azkenik: iraganen Ederrena frontoia Gernikako Arbola Plazan zegoen. 2014ko San Joan eta Santa Isabel jaien bezperetan mendia eta itsasoa lotzen dituen errepide baten izenak biak batu ditu: “Asko joanak gara, asko etorriak baina bihotzak dio”, dio lelo berriak. Gehiago ere badio: “Zoaz eta zatoz herrira, bizi dedin oraindion!”. ■

**Mikel
Asurmendi**



Abioiak, bizileku aproposak bakterioentzat

AUBURNEKO unibertsitate estatu-batuarreko biologo talde baten arabera, bakterio batzuek gaitasuna dute hainbat egun bizirauteko abioietako leihatiletako beso-euskarrietan, plastikozko mahaietan eta bidaiariek erabili ohi dituzten zenbait objektutan.

Bakterio horietako bat *Staphylococcus aureus* da, zenbait kasutan azaleko infekzio hilgarria sor dezakeena. Halaber, digestio aparatuan arazo larriak sortzen dituen *Escherichia coli* ezaguna usu aurkitzen da hegazkinetan.

Aipatu bakterioen erresistentzia neurtzeko, abioietan erabiltzen diren hainbat tresna hegalaldiko baldintzetan mantendu dira, hau da, 24 graduko tenperaturan eta %18ko hezetasunean. Ikerlariak behatu dutenez, *Escherichia coli*-k lau egun iraun du beso-euskarrietan, eta hiru egun jateko plateretan. *Staphylococcus aureus*, berriz, gai izan da astebete bizirauteko eserlekuak estaltzeko erabiltzen diren oihaletan.

Azterketaren emaitzak ikusita, AEBetako abiazio konpainietako arduradunek abioien desinfekzioari buruzko hainbat aholku jaso dituzte. ■



JER.DV



Smartphonekiko mendetasuna, psikiatren pagotxa Asian

KHABRAINMANCHESTER.COM



SMARTPHONEN ERABILERA arazo psikiatriko bilakatzeko bidean da Asiako estatu askotan. Hego Korean, Singapurren, Taiwanen eta Txinan gailu horien gehiegizko erabilerragatik kezka zabaldu da.

Singapurren bizi diren 5,5 milioi pertsonen %87k smartphonak ditu, AEBetan %65ek baino ez, eta Facebookera konektatzen diren bakoitzean 38 minututik gora pasatzen dute bertan, estatubatuarrek halako bi.

Telefono horiek eta, oro har, interneteko zerbitzuek sortzen dituzten mendetasunak ez daude medikuntza liburuetan jasota, eta horrek segurtasun eza handia sortzen du psikiatren diagnostia egiteko garaian.

Kalkulatu da hainbat estatutan populazioaren %5ek baino gehiagok izan dezakeela mota horretako arazoren bat. Portzentajeak, gainera, gora egingo duela aurreikusi denez, prebentzio bideak jorratzen hasiak dira. ■



Aerosolek eragin handia dute hodeien sorkuntzan

Orain 30 urte konturatu ziren zientzialariak klorofluor hidrokarburozko aerosolek Antartikako ozono geruzan arazo larriak sortzen zituztela. Substantzia haiek debekatu egin ziren, eta egun beste batzuk erabiltzen dira aerosol gisa. Oraindik ez da ondo ezagutzen horien eragina, baina berriki jakin da hodeien sorrera biziki azkartzen dutela.

ttiki.com/68922
(Euskaraz)

Curiosity zunda, (bertako) urte bat Marteko datuak jasotzen

2012ko abuztuaren 6an Martera iritsi zen Curiosity zunda. Urtebete darama han, datu bilketan, baina Marteko urte bat, ez Lurrekoa. Zehazki, joan den ekainaren 24an bete zen urteurren hori. Kontuan izan behar da Marte Lurra baino urrutiago dagoela eguzkitik, eta gainera abiadura txikiagoan mugitzen dela.

ttiki.com/68923
(Frantsesez)

Apar arin eta zurruna aldi berean

AEBetako hainbat zentro teknologikotako ikerlariak sortutako material berriak arintasuna eta zurruntasuna uztartzen ditu. Apar bat da, eta okupatzen duen espazioaren %99 hutsa da, baina antzeko materialak baino 10.000 aldiz zurrunagoa da. Eraikuntzan eta hegazkintzan izango du erabilpen gehien.

ttiki.com/68924
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Topiaria

TOKIAK SORTZEKO artea da topiaria. Tokia edo gunea adierazten duen *topos/topia* grekotik dator, “utopia”, “entropia” eta abar bezala. Landareak kimatuz itxura jakin batera eramaten dira. Landare bakar bat bezala baso oso bat izan daiteke. Paisajisten, arkitektoen, lorezainen eta edonoren imintzio edo artea da topiaria. Batzuek ikaragarriko tokiak sortu nahi dituzte. Horren adibide ederra da Versailles sonatua, André le Nòtre (1613-1700) handiaren burutik sortua.

Egunero ikusten dugu topiariaren bat. Batez ere hesiak: haizea moteltzeko, itzala sortzeko, jabe-goa nabarmentzeko edo zerbait begiei kentzeko. Landare ugari-ekin egin ohi da topiaria: ezpela (*Buxus sempervirens*), arbustuak (*Ligustrum* sp.), japoniar basaerramua (*Evonymus japonicus*), tuiak (*Thuja* sp.), Leylandgo altzifre hibridoa (*x Cupressocypris leilandii*), Arizonako nekosta (*Cupressus arizonica*), gorostia (*Ilex aquifolium*), pagoa (*Fagus sylvatica*), hagina (*Taxus baccata*)...

Azken hori, hagina, buelo handiko lanak egiteko erruz erabiltzen

da. Asko dira, han eta hemen, haginez egindako maisulan ikusgarriak, baina Erresuma Batuan adinako aukerarik ez dago inon. Bat ekarriko dizut, bitxia. Ingalaterran bizi da, Gloucestershire eskualdeko Cotswold-eko Bathurst Estate-n, Apsleytarraren etxean Allen Apsley du jabe eta zaindaria. Ingalaterrako hagin hesi garaiera da. 40 oineko garaiera hartua du, hamabi metrotik gora. Zabalera ere ez du nolana hiko: hamar metro. Eta 150 luze da. Urtero 6.000 eurotik gora behar du kimatze lanak ordaintzeko. Garai batean zurubi luzeekin egiten zuten muskiltze lan hori, eta gaur egun plataforma higikorrenkin. Bi langileren bi egun behar dira muskiltzea burutzeko. André le Nòtre hil zen garaian aldatutakoa da.

Hagin hesia ez da, ordea, xahupena soilik. Eman ere, ematen du. Zenbat, ez dakigu, baina asko izango da, zalantzarik gabe. Hagina pozoitsua da, baina botikak egiteko gai bereziak ere baditu.



TKX-CC BY SA



Goian, Versailles ospetsua. Behean, langileak Bathurst Estateko haginezko hesi erraldoia kimatzen.

Kimatutako adarrak txukun-txukun bildu eta horietatik sortzen da docetaxela egiteko osagaia. Botika horrekin moldatzen da birrikako, bularreko eta obarioko minbizia tratatzeko kimioterapia. ■



LUCARELLI-CC BY SA



Limoiondoa pattal

LIMOIONDOA (*Citrus x limon*) soiltzen eta pattaltzen ari zaion batek adar batzuk ekarri dizkit, ea irtenbiderik ba ote duen galdezka. Adarretan agertzen diren apopilo zuriak kukurrutxa ildaskatuak dira, *Icerya purchasi*. *Citrus* generoko garrazki jendeari erruz erasotzen diote. Izerdia zurruputzen dute, eta haren soberakinek ematen diote distira beraiek dauden aldeari. Izerdi horri, gero, negrilla (*Fumaginas* sp.) onddo oportunistak erasoko dio, eta dena belztuko du. Izerdirik gabe eta gaina estalita, bizi ezinik, erori egingo da hostoa.

Kukurrutxa erabat kentzea ez da erraza. Alkoholez bustitako kotoi batekin igurtzi, eta handienak kenduko dituzu. Kumeak garbitzeko, ura xaboi potasikoarekin edo xaboi likido pittin batekin nahasi eta landare osoa, goi eta behe, ongi busti, blai egin. Bide batez, baita inguruko lurra ere eta, ontzi batean bizi bada, hura ere bai. Okerrenera, intsektizida sistemiko bat erabili. ■

Entzun arren, San Fermin, zu ez zaitugu patroiri

TOLOSA (GALIA), 250. Saturnino misiolari erromatarra Akitaniara iritsi zen Grazio eta Dezioren kontsulgo urteetan. Fede kristaua hedatzeko predikatzen aritu zen Galian, Pirinioetan eta Iberiar penintsularen iparraldean, eta Tolosako lehen gotzaina izan zen, handik urte gutxira, 257. urte inguruan, paganoek martirizatu eta hil zen arte. Horixe diote behintzat Surioaren Agiriei; beste iturri batzuek, San Saturninoren agiriei esaterako, predikaria K.o. I. mendean bizi izan zela diote.

Tradizio kristauaren arabera, Tolosako apezpikua zela Saturnino Iruñera joan zen Honesto laguntzailearekin batera. Gaur egun San Saturnino eliza dagoen tokian Diana jainkosari eskainirako tenplua omen zegoen orduan, eta parean, ur putzu bat. Honestok, Saturninok eta haien jarraitzaileek 40.000 pertsona bataiatu omen zituzten putzu horretan.

Besteak beste Firmo senatari erromatarra bihurtu zuen kristautasunera Pompaelon zen bitartean. Firmoren seme Fermin Saturninok berak bataiatu omen zuen; baina San Saturnino eta San Ferminen jaiotza eta heriotza data zehatzak jakiterik ez badago ere, lehena 257. urte inguruan hil zen eta bigarrena 272an jaio. Beraz, ez dirudi elezaharrak dioena benetan gertatu zenik.

Fermin 24 urterekin izendatu zuten Amienseko gotzain. Zazpi urte geroago, hainbat erromatar aurkarik bultzatuta, kartzelan sartu zuten eta burua ebaki zioten. 1186an Pariseko gotzain Pedrok San Ferminen erlikiak Iruñean egon behar zirela erabaki zuen, eta santuaren arrastoak –haren kristautza lanaren aurka zeudenek moztutako burua, hain zuzen– Amiensetik Iruñera eraman zituzten. Horrek San Ferminen gurtzari bultzada handia eman zion, baina ordurako Iruñean jaiotako santua ez zen bakarri iruindarren zaindari izateko lehian.

X. mendean biztanle frankoen kopuruak nabarmen egin zuen gora



MIGUEL URZAINQUI

San Saturninoren irudia Iruñeko kaleetan prozesioan.

Iruñean. Etorrinek beren zaletasun erlijiosoak eraman zituzten, eta hala, Tolosako lehen gotzainaren omenezko eliza eraiki eta San Saturninoren gurtza zabaldu zuten.

Duela 400 bat urte, 1611n, San Saturnino Iruñeko zaindari izendatu zuten, eta azaroaren 29ko festa hari eskaini zioten.

Entzierroan irten aurretik, korrikalariak zera kantatzen diote santuari: “A San Fermin pedimos, por ser nuestro patrón...”. 2009tik aurrera euskarazko itzulpena erantsi diote kantari: “Entzun, arren, San Fermin, zu zaitugu patroiri...”. Egia da San Fermin Amienseko eta Lesakako zaindaria dela, eta Nafarroako patroigoa partekatzen duela San Frantzisko Xabierrekin. Baina Iruñeko patroia San Saturnino da. Eta, gainera, haren martirioak antz handiagoa du entzierroekin San Ferminenak baino. *Passio Saturnini* dokumentuaren arabera, Saturnino zezen bati lotuta Kapitolioko eskaileretan gora eta behera ibili zuten, bere gorpua txikituta geratu zen arte. ■



Arrastoak

Zergatik dira azenarioak laranja kolorekoak?

KOLORE askotako azenarioak daude: morea, zuria, horia, gorria... K.o. I. mendeko iturriek azenario horiak eta gorriak aipatzen dituzte. Baina zabalduenak laranja kolorekoak dira, aldaera berriena izan arren. XVII. mendea bitartean azenario laranja ez zegoen, eta moreak ziren ohikoak.

XVII. mendean, Herbehereetan, laranja koloreko azenarioak lortu zituzten hainbat mota gurutzatuta. Laranja Orange errege etxearen kolorea da, eta Herbehereetako monarken omenez sortu zuten aldaera. Kolore biziak gain, azenario laranja zapora ona zuten, arina eta gozoa. Gainera, Herbehereak merkataritza potentzia bihurtu ziren mende hartan, eta horrek ere lagundu zuen azenario berria besteen gainetik hedatzen. Holandak azenario kolorea duela pentsatzea, beraz, ez da erabat zuzena; azenarioek dute Holandaren kolorea. ■



USDA ARS

Hainbat koloretako azenarioak.

Iruñeko Zitadelatik ihes egin zuten alemanen historia

1916ko azaroaren 8an *Paramount* gerra-ontzi britainiarrak patatxe txiki bat atzeman zuen Mantxako kanalean. Barruan, Iruñetik eta Alcaláti*k* ihes egindako aleman taldea topatu zuten. Nola iritsi ziren haraino? Alemanen ihesaren kronikak zinemarako gidoia dirudi.


| PATXI LARRION |

LEHEN MUNDU GERRAREN garaian Iruñeko Zitadelan laketu zen aleman multzo bat, egunero Arga ibaira bainua hartzera joaten hasi zena. Iruñeko Udalak 1919an Arga ibaiaren ertzean bainuetarako etxola bat jartzea baimendu zuen. Laster inguru horri alemanen ibaia esaten hasi zitzaion.

Iruñeko Zitadelakoak Kamerundik etorriak ziren, Afrika ere Lehen Mundu Gerrako borroka tokia izan baitzen. Alemanek 1916ko otsailaren 15ean Kamerunen amore eman zutenean, mila bat soldadu Río Muni Espainiako koloniar­ pasa ziren. Aliatuak ez ziren fida eta Alfontso XIII.a erregeari alemaniarrak Espainiaratzeko eskatu zioten.

Aleman­iar­rak eta kamerundar­ren bat Karl Ebermaier gobernadorea buru zutela *Isla de Panay* eta *Cataluña* merkantzia-ontzietan sartu, Santa Isabel portutik atera eta Kanarietako Las Palmasetik igaro ondoren 1916ko maiatzaren 4an Cádi-

zera ailegatu ziren, han bi tren zituzten esperoan. Madrilgo Mediodía tren geltokira maiatzaren 5ean iritsi ziren. Han zen Madrilgo kolonia aleman osoa. Geltokian heldu zen mila lagunez osaturiko



Ihesaldian parte hartu zuen Erich Robert Petersenek egunerokoa idatzi zuen. Liburuaren azalean, iheserako erabilitako *Virgen del Camino* patatxea ageri zaigu, gerra-ontzi batekin topo egin zuen unean.

taldea sakabanatzeko tenorea. Kontu honetarako, J.A. Tojo Ramalloren *Cazadores de Barcos* liburua jarraituko dugu. Horren arabera, ofizial gorenak, 60 bat, Madril­en geratu ziren, Alcalán 142 soldadu,

multzorik handiena Zaragozara eram­an zuten, Aranjuez, Teruel eta Valladolidera doze­na batzuk bidali zituzten, Urduñara katolikoak eram­an zituzten, eta 217 soldadu Hiri Buruzagira bidali zituzten.

Alemanak Hiri Buruzagian

Kamerundik etorritakoak maiatzaren 6an iritsi ziren Iruñeko tren geltokira. Haien artean, bi kapitain, hamar ofizial, bost sendagile, 147 soldadu, Gobernadorearen kontseilari bat eta 52 zibil. Azken hauen artean, emakumezko bat, zenbait ingeniari, erizainen bat, trenbideetako langileak, postariak, bi arkitekto eta merkantzia-ontziteriaren ofizial bat. Hiri Buruzagiko harrer­an ere ez zen agintaririk falta, besteak beste hor zen Iruñeko Apezpikua, José López Mendoza y García.

Alemanen trasladoa ez zen inprobisatua izan, Manuel Negrillos y Goicoechea Iruñeko alkateak bando bat atera zuen alemanak begirunez tratatzea eskatzen zuena, Espainiako estatuaren gerrarekiko neutraltasuna maiz itxurazkoa zen. Alkateak aliadofiloen eta germano­filoen arteko liskarrak saihestu nahi zituen.

Iruñeko Zitadela kontzentrazio eremua zen. Baina praktikan aski



Ekzerrean, Erich Robert Petersenen liburuko litografia preziatua, Wilhelm Petersen marrazkilariak egina: erraldoi eta kilikiak Iruñeko Sanferminetan. Kamerundik ekarritako alemanek bete-betean hartu zuten parte festetan 1916ko udan. Goian, *El Liberal*-en 1917ko urtarrilaren 3ko alea; ihesaren berri zehatz-mehatz eman zuen egunkari madrildarrak.

laxoa zen erregimena, diru piska bat zuten alemanek berehala hartu zuten ostatu Hiri Buruzagiko hostal eta pentsioetan, eta aski fite, maia-tzaren 27an, Bilbo eta Donostiatik etorritako alemanekin Iruñean festa bat antolatu zuten.

Sanferminak heldu ziren eta alemanek entzierroa eta erraldoi eta kilikien konpartsaekin gozatu ederra hartu zuten, bestalde Juan Belmonte toreatzailearen dotoreziak txunditurik utzi omen zituen Erteuropakoak. Gerraren eraginez giririk gabeko Sanferminak izan ziren 1916koak, atzerritar gutxiago etortzearenak berebiziko protagonismoa eman zien alemanei, *El Pensamiento navarro*-k egunero sail bat ateratzen zuen aleman hizkuntzan, bertan gerraren inguruko informazioa eta ferien egitaraua argitaratzen zuen.

Alemanen ihesa abian

Karl Koch zuen izena Iruñeko ihesa antolatu zuen ofizialak. Ihesa 1916ko urriaren hasieran gertatu zen eta prestatze lanetan Iruñeko zein Madrilgo Alcaláko kontzentrazio eremuetan ziren militarrez gain, hainbat kargu eta espia alemanek hartu zuten parte, besteak beste, Ebermaier jeneralak, Vigoko kon-

tsulatuko idazkari Kindling jaunak eta Kochekin batera berebiziko protagonismoa izan zuen Hans Reupke gazteak.

Akaberatik helduko diogu ihesaren kontakizunari. 1917ko urtarrilaren 3an Madrilgo *El Liberal*-ek azalaren erdia alemanen ihesaren kontakizunari eskaini zion. *El Liberal*-eko kronikak zinemarako gidoi bat dirudi. Baina ihesa berritzeko informazio iturririk joriena ihesean parte hartu zuen Erich Robert Petersen sarjentuaren kontakizuna dugu. Petersenek 1933an egunkari moduko liburua utzi zigun, *Durch Busch und Blockade* (Zuhaixketan eta blokeoan barna).

Iruñeko Zitadela kontzentrazio eremua zen, baina praktikan aski laxoa zen erregimena

Kochen plana arrunt sinplea zen. Itsasontzi bat erosi, iheslariek bai Alcalá bai Iruñetik alde egin behar zuten eta Galiziako porturen batera iritsi. Hori lorturik, itsasoratu, Irlanda eta Eskoziako kostaldeak ingura-

tu eta Norvegiako kostaldetik Alemaniako porturen batera arribatu.

Iheslariek itsasontziaren kostua eta itsasaldia hornitzeko gastuei aurre egin behar zieten. Dirua ez zen afera aleman askorentzat, aparteko ordainsaria jaso omen zuten Espainiara heltzean. Bestalde, iheslariek gazteak behar zuten izan eta itsasoan arituak baziren, hobe. Hiri Buruzagian Koch ofizialak egin zuen aukeraketa, eta lagun zituen Walter Grätshuss eta Dietrich Kiltlass arduratu ziren Alcalákoaz.

Kochek Zitadelatik kanpo zuen kontaktua Hans Reupke zen. Honek hartu zuen itsasontzia lortzeko ardura. Eginkizun horretarako Kindling jaunarekin jarri zen kontaktuan, Kindlingek *Belgrano* merkantzia-ontziko eskifaiakoak aurkeztu zizkion Reupkeri. *Belgrano* A Coruñaiko portuan zen gearazia gerra hasiz geroztik, eskifaiakoek bideraturik Reupkek Wolhaupt abizeneko alemana ezagutu zuen eta honen laguntzaz *Virgen del Socorro* patatxe klaseko arrantza-ontzia feriatu. Noiako Felipe Perez zen arrantza-ontziaren jabea. Perezek patatxea Vigora eraman beharra zuen, bertan salerosketaren izapideak egin zitzen.

Hau guzti hau irailean lotu zuen Reupkek eta iheslariekin harremanetan jartzeko telegrafoa eta posta baliatu zituen. Bost lagun ziren Iruñeko Zitadelatik alde egin behar zuen taldean. Kochekin batera, Emil Schulz, Karl Schauf, Jacob Lohrmann eta arestian aipatu Erich Petersen sarjentua. Zazpi ziren Alcalako taldean, Gräutschuss eta Kittlass-ez gain, Karl Niemeyer, Leopold Kütz, Bruno Rassak, Hans Fritsche eta Max Jutersonke.

Hamabi horiez gain, zortzi lagun ziren Vigon zain, Hans Reupke, Alex Grossmann marinela, Hans Rautenberg sendagilea, Herman Enken *Werth* itsasontziaren marinela eta Goeben merkantzia-ontziko lau ofizialak: Henrich Zuppe, Karl Hilburgh, Maxe Griebel eta Emil Stehr. Hauek dena prest eduki behar zuten Iruñea eta Alcalákoak iristerako. Reupke eta Zupperena izan zen hornigaiak erosi eta, gaua lagun, Vigoko portuan gerarazia zen *Werth* merkantzi-ontzi alemanera eramatearen ardura.

Alemanen ihesa gauzatua

Ihesa Iruñean hasi zen. 1916ko urriaren 3an Karl Koch Zitadelako erietxera hurbildu da, tripako mina omen du, artatu ondoren Salcedo Gobernadore Nagusiak urriaren 3tik 8ra bitartean Lekunberrin tratamendua hartzeko baimena eman dio. Lekunberrira iritsi eta Meyer abizeneko aleman bati automobil bat alokatuko dio. Urriaren 5eko goizean Iruñetik lau kilometro pasatxora Zitadelako gainerako lauekin elkartuko da. Gasteiztik barna Palentziara heldu dira, ilunabarrean, elkarri arrotzak bailiran, Vigorako tren hartu dute. Denak ez dira tren ez iritsiko. Lohrmann eta Petersen Redondelako geltokian jaitsi dira, bertan Riedel izeneko agente bat dute zain, Vigorainoko tartea gurdi batean eginen dute landa-bideak ibiliz.

Urriaren 6a da, eta Alcaláko zazpiak ere Vigora ailegatu dira. Hauen ibilbidea ez da ezusterik gabe igaro. Telegramarekin nahaste bat gertatu da. Izan ere, Gräutschussek ez du garbi *Pepita* (Palentziarako automobila) heldu behar den ala ez. Azkenean *Pepita* heldu da, Palentziaraino kotxez joan eta handik tren ez Vigora. Egun

«Nafarrak baino alemanak dirudite»

ESTATU ESPAINARREKO prentsa Gerra Handian bitan banatu zen, germanofiloak eta aliadofiloak. *El Liberal* aliadofiloak 1916ko abenduaren 11ko azalean Nafarroako prentsa germanofiloaren jokabidea salatu zuen.

Hainbat ospetsuk eratu berria zuten batzorde bat nafar-frantses soldadu zaurituak sustengatzeko. Kazetariak nafarren arteko anaitasuna eta Antzinako Erresuma ekarri zituen gogora. Apezpikuak diru-biltzea bultzatu zuen eliz-barrutian eta bildutako dirua Baionako apezpikuaren esku uzteko asmoa adierazi. *El Liberalek* ez zuen egokierarik galdu Nafarroako prentsa germanofiloa salatzen. Urte bereko azaroaren 21ean Alemaniako Gurutze Gorriaren aldeko festa antolatuta zuten alemanek Iruñeko Euskal Jai pilotalekuan, eta 3.629,15 pezeta bildu. Jaialdi hura aski ongi publizitatu zuten *El Pensamientok* eta kazetariak espreki aipatzen zuen *Diario de Navarra*. Nafar-frantsesen aldeko diru bilketa aldiz zokoraturik agertzen zen egunkari horietan.

berean, *Virgen del Socorro* arrantza-ontziak Vigoko portuan sartzeko maniobra egin du eta *Werth* ontziaren alboan amarratua geratu da.

Itsasaldia hasteko prest dira hogeiak. *Virgen del Socorro* patatxearen salerosketan 11.150 pezeta ordaindu dituzte eta hornigaien kostua gaineratuta denen artean guztira 17.693 pezeta jarri dituzte. Hogeiak banan-banan *Werth* ontzian sartu dira eta hortik alboan den *Virgen del Socorro*ra igaro. Urriaren 7an, goizaldean *Anduriña* atoi ontziak Cies uharterean parean utziko du *Virgen del Socorro*. Hara iritsi baino lehen *Gaviota* gerra-ontzi espainiarra agurtzeko tenorea izan dute.

Urriaren 24a da, eta erabat aldatu da iheslarien plana, denboraleak kalte nabarmenak egin dizkio *Virgen del Socorro*ren kroskoari eta masteriari. Baldintza horietan ezinezkoa zaie Irlanda eta Eskoziako kostaldeak ingurutzea. Mantxako kanalaren sarreran dira eta hortik jotzea erabaki dute. Azaroaren 6an eta 7an izkin egin diete destruktore ingelesei, baina azaroaren 8an *Paramount* gerra-ontzi ingelesak begiztatuko du patatxea. Hasieran Holandako bandera erakutsi diete, baina ingelesek ez dute gezurra irentsi. Britainia Handiko Ramsgatera eramanen dituzte eta han izanen dira hogeiak Lehen Mundu Gerra amaitu arte.

Nonbait, bada Vigon ezer ikusi duenik eta berehala aliatuen informazio zerbitzuak martxan jarri dira. Frantziako kontsulak ihesa salatuko



Alemanen ihesak porrot egin zuen. Britainia Handiko Ramsgaten eduki zituzten preso.

du Espainiako agintari militarren aurrean, baina azken hauek ez dute *Virgen del Socorro*ren jazarpenik abiatuko. Bestalde, azaroaren 21ean, patatxea atxiki eta gero gobernu britainiarrak Madrilgo enbaxadorearen bitartez gaitzespen mezua helaraziko dio gobernu espainiarrari. Ordurako Ramsgateko kartzelan ziren hogeia iheslariak.

1917ko urtarrilaren 21ean, iheslaren nondik norakoak *vox populi* zirela, alemanek jai bat antolatuta zuten Iruñeko Parisien antzokian. Hiri Buruzagia festa hutsa zen. ■





Juan Carlos Moreno Cabrera hizkuntzalararen ustez hiztunak munduko hizkuntza guztietan komunika daitezke berdin, Australiako hizkuntza aborigen batean edo ingeles modernoan.

Hizkuntza guztiek berdin komunikatzen dute?

Mikel Mendizabal Ituarte galderak egiteko dohain preziatua du. Hasteko, bere buruari galdetu ohi dio: “Zergatik hitz egiten da horren gutxi euskaraz? Zergatik hainbeste euskaldun ez da euskaraz ia inoiz mintzatzen? Zergatik jotzen dugu horren maiz erdarara euskaraz ari garenean?”... Erantzun bila, azalean bertan galdera dakarren liburua ondu du egileak: *Hizkuntzen berdintasun komunikatiboa: mitoa ala errealitatea?* (Utriusque Vasconiae, 2014). Lau adituk erantzun diote galderari.

| MIEL A. ELUSTONDO |

LANAREN ATARIKOAN Mikel Mendizabal Ituarte (Donostia, 1963) dienez, hizkuntza irakaslea eta euskaltzalea den aldetik hainbat galdera egin dizkio bere buruari hizkuntzen izaerari eta funtzionamenduari buruz. Horrekin batera, dio euskararen egoera diglosikoa aztertu nahian hainbat teoria irakurri ditugula, egoera ulertu eta irauli nahian, beharbada. Mondragon Unibertsitateko Hizkuntzen Psikopedagogia ikasketak amaitzeko egitasmoa den *Hizkuntzen berdintasun komunikatiboa: Mitoa ala errealitatea?* honetan, Mendizabalek berrikuntza erantsi nahi izan die orain arteko ikuspe-

giei, eta horretarako, oinarri-oinarriko galderak eginez abiatu da: “Hizkuntza guztiek komunikatzeko gaitasun bera al dute? Modu implizitu edo esplizituan aipatzen den hizkuntzen parekotasun komunikatiboa, errealitatea ala mitoa da? Errazagoa al da zenbait hizkuntzatan hitz egitea? Eta hau horrela bada, zergatik?”.

Lau hizkuntzalari begiz jo eta hainbat galdera egin dizkie. Hona koak ditugu hizkuntzalariok: Miren Azkarate Villar, Euskal Filologian doktore eta katedraduna, eta euskaltzain osoa; Bernard H. Bichakjian, Holandako Radbour unibertsitateko frantses irakasle ohia; Juan Carlos Moreno Cabrera, Filosofia eta Letretan doktorea eta hizkuntzalaritza katedraduna Madrilgo Unibertsitate Autonomoan; eta Jesus Rubio Peña, Ekonomia eta Enpresa Zientzietan doktorea, estatistika irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean.

Mendizabalek hainbat galdera zuzendu dizkie, nork beretik erantzun dezan: “Nola definituko zenuke lengoaia? Ba al da hizkuntza zailagorik, hitz egiterakoan nahiz idazterakoan? Zein da hizkuntza ideala? Halako hizkuntza batean, ba al dira komunikazioa zaildu edo tra-

batzen duten elementuak?... Tartean, jakina, lanari ematen dion galdera da nabarmen: “Hizkuntza guztiak komunikatzeko gaitasun maila berdina al dute?”.


Potentzialtasun bera

Miren Azkarate irakasleak hizkuntzen gainean izan diren zenbait uste berrikustera jo du galderaren erantzunean. XVIII. mendean Larramendik *Diccionario Trilingüe* lanaren hitzaurrean nahiz *El imposible vencido* gramatikaren atarikoan idatziak dakartzkigu gogora. Azkaratek dioenez, Larramendi, Joanes Etxeberri Sarakoa eta gainerakoak garaia ondo ondo ziren, eta orduko usteak zituzten: euskara Babelgo nahastearen ondoren sortu ziren hizkuntzetako bat zela sinesten zuten. Horren froga litzateke, euskarak bestelako hizkuntzekin ahaidetasunik ez berdintasunik izatea. Mendizabalek egindako galderari erantzuteko puntura heldurik, Patxi Baztarririk *Babeli gorazarre* liburuan idatzi zue-

“Hizkuntzen komunikazio gaitasunaren neurria mugatzen duena ez da hizkuntza bera, hiztunek hizkuntzari urteetan eman dioten erabilera baizik”

Miren Azkarate

nera jo du Azkaratek. “... hizkuntzen komunikazio gaitasunaren eta garapenaren neurria mugatzen duena ez da hizkuntza bera, hiztunek hizkuntzari urteetan eman dioten erabilera eta funtzionaltasunaren nolakoa baizik. Lizardik euskararako aldarrikatu zuen hizkuntzaren *noranabikoaren* irudiaz baliatuz, zenbat eta *noranabikoago* izatea lortu, orduan eta era guztieta-ko errekurtsio gehiagoz eta aberatsagoz jabetzen da hizkuntza, edozein delarik ere. Abiapuntuan, bada, potentzialtasun berekoak dira hizkuntza guztiak”. Hizkuntza guztiak, potentzian besterik ez bada ere,



berdintasun komunikatibo bera dutela pentsatu beharko dugu.

Erantzun gabe utzi beharreko galdera

Bernard H. Bichakjianen iritziz, zaila da galdera. “Hizkuntza guztiak hiztunek beren mezuak zabaltzen dituztenez gero, hizkuntza guztiak gaitasun komunikatibo bera dutela esan beharko genuke”, dio erantzunaren hasieran. Sakonera joz, ordea, besterik esango digu: “Hiztun guztiak beren mezuak zabaltzen dituztenez gero, hizkuntza guztiak komunikatzeko gaitasun bera dutela esatea, zera esatea da: hizkuntza guztiak komunikatzeko gaitasun bera dutela, kontzeptualizatzen dutena kontzeptualizatzeko gaitasuna dutelako. Jakina, hau *non sequitor* bat da”. Esan nahi baita, falazia bat, edo are, gezurra.

Bichakjianen iritziko, hizkuntzek hiztunei kontzeptualizazio ahalmen bera ematen ote dieten da hil ala biziko galdera. Eta erantzunik ez du hizkuntzalari honek. “Esaterako, adjektiboak dituzten hizkuntzek, adjektiborik ez duten hizkuntzek baino kontzeptualizatzeko ahalmen handiagoa ematen diete hiztunei?” Edo, sintaxiari loturik, “perpauk konplexuak dituzten hizkuntzek gehiago laguntzen dute sarrera eta irteera mezuaren egitura hierarkikoa antolatzen, oraindik gisa horretako perpauk erakitzen ez dituzten

hizkuntzek baino?”. Dena den, adjektiborik ez duten hizkuntzek, eta perpauk konplexuak baliatzen ez dituztenek, bestelako baliabideak dituzte, “alabaina, alternatiba horiek aurrekoak bezain eraginkor dira? Zilegi da galdera hauek eta antzekoak egitea eta erantzuna merezi dute”.

Azkenean, Charles Ferguson hizkuntzalari estatubatuarren hitzak bere eginez ariko da Bichakjian: “Hizkuntzalaritzari buruzko ikastaroretan, askotan egia zientifikotzat hartu izan da hizkuntza guztiak bai konplexutasunez, bai adierazkortasunez guztiz berdinak izatea, baina, nik dakidanez, ez dago horren frogarik batere”. Bichakjianek eranstean duenaren arabera, politikoki zuzena izan behar oraindik pisu handia du, eta horregatik, bere horretan irauten du hizkuntza guztiak komunikatzeko gaitasun bera dutelako usteak. Horrek, inondik ere, ezinezko egiten du ikerketan abiatzea bera, hau da, gaia irizpide zientifi-

“Askotan egia zientifikotzat hartu izan da hizkuntza guztiak bai konplexutasunez, bai adierazkortasunez guztiz berdinak izatea, baina, nik dakidanez, ez dago horren frogarik batere”

H. Bichakjian

koz ikertzeko saioak zapuzten ditu. Ondorioz, hizkuntza guztiak komunikatzeko gaitasun bera duten galdera erantzun gabe utzi behar da.

Gaitasun komunikatiboa, hiztunek

Juan Carlos Moreno Cabrerak hasieratik joko du iltzea buruan: “Gaitasun komunikatiboa ez da hizkuntzek duten propietatea, hiztunek dutena baizik. Hizkuntzak ez dira gaitasunak dituzten entitate autonomoak. Ez dira kortxo-kentzeko edo zorrozkaile bat bezalako objektuak. *Hizkuntza*, izan, ahoz edo keinu bidez aktibitate komunikatibo espezifiko eta berezien mul-



WWW.MARYDEMUTH.COM

Bernard H. Bichakjianek eta Jesus Rubiok uste dute errazagoa dela zenbait hizkuntzatan hitz egitea eta hiztun elebidunak errazen egiten zaion hizkuntzara joko duela. Argazkian, Haitiko kreolera hiztunak.

tzoari esaten diogu. Hizkuntzak ez dira hizkuntz komunikazioa gauzatzeko bitartekoak, hiztun komunitate baten hizkuntz aktibitate komunikatibo berezia baizik”. Moreno Cabreraren iritziz hizkuntz aktibitate behagarria eta egiaztagarria da; aldiz, hizkuntz gaitasuna, egiaztagarria da, nahiz eta ez zuzenki behagarria. Hizkuntzak, berriz, ez dira ez bata ez bestea, ez dira entitate edo gauza autonomo, isolagarri eta egiaztagarriak. “Hizkuntzak, uler-tzen ohi dugunez, zenbait kulturaren sorkari idealizatuak dira, *demokrazia, espiritualtasun, gizarte, kultura* eta horrelako beste kontzeptu asko bezalakoak”. Hizkuntzen berdintasun komunikatiboari buruzko galdera, hau da, halako hizkuntza batek beste batek baino gaitasun komunikatibo handiagoa duen –edo ez duen–, galdetzea zentzugarrikeria litzateke Moreno Cabreraren irudiko.

Hizkuntzalari honek ez du ukatzen hizkuntza ezberdinek, formalki, osagai ezberdinak erabiltzen dituztela. Besterik da horrek hizkuntzen hiztunen gaitasun komunikatiboa nola edo hala eragiten duen. Adibidera joko du Moreno Cabrerak. “Badira hizkuntza batzuk genero gramatikala dutenak, eta beste

batzuk, aldiz, ez dutenak. Horra gaztelania eta euskara. Gaztelaniaz mintzo garenean, erabiltzen ditugun substantibo guztien generoa zaindu behar dugu formalki, euskaraz ari garenean ez bezala. Horrek esan nahi du euskara hiztun natiboak gaztelania hiztun natiboak baino

“Badira hizkuntza batzuk genero gramatikala dutenak, eta beste batzuk, ez dutenak. Horrek esan nahi du euskara hiztun natiboak gaztelania hiztun natiboak baino komunikatiboki mugatuago daudela?”

J. C. Moreno Cabrera

komunikatiboki mugatuago daudela?” Moreno Cabrerak galdera, eta berak erantzuna: “Uste dut argi dagoela ez dagoela gisako muga komunikatiborik. Euskaldunek gaztelania hiztunek duten gaitasun komunikatibo bera dute sexuari

buruzko gorabeherak komunikatzeko; ez dirudi inork urritasuna aurkitu duenik horretan”. Adibidez ari da, baina beste koska bat ere estutu du auzia, esanez ez suomierak, ez hungarierak, ez turkierak dutela genero gramatikala, eta hizkuntza horietako hiztunetan ere ez da ikusi generoaz edo sexuaz hitz egiterakoan gaitasun komunikatibo urriagoa dutenik.

Hizkuntza batzuk garatu duten gaitasun komunikatiboa

Jesus Rubiok darabilgun galderari eman dion erantzuna baino lehen, esan beharko da Euskal Herriko Unibertsitateko estatistika irakasle honek bere gisa eraiki duela hizkuntz sistema, edota, besteak beste, *Euskararen garabideak* (Alberdania, 2002) liburuan proposatu zituen aukera *prepositivoen* bidetik jo duela. Liburuko galderari, berriz, honelaxe erantzun dio Rubiok, hitzez hitz: “Kontua da ze hizkuntza guztiak ahal dute adierazi nola edo hala edozein mezu, baina segituan esan behar da ze hor ez da amaitzen afera, zeren badira hizkuntzak zein duten garatu valiabide eta estrukturara sintaktiko berezituak zeinekin iritzi helburu komunikatibo konplexuak an modu erosoan. Zentzu

horretan badira hizkuntzak zein duten garatu gaitasun komunikativo finduagoa, aberatsagoa...". Garabideak garabide, estimatuko genuke hizkuntza zelaiagoa elkar komunikatzekotan. Jesus Rubiok proposatzen duen ereduari buruzko eztabaidarako, dena den, sustatu.com-era joan besterik ez dago, eta liburua argitaratu zuen garaian Joxe Aranzabalek, Pruden Garziak, Josu Lavinek eta Jesus Rubiok berak izan zuten iritzi trukea irakurri.

Iritziak alde banatan

Lanaren egile Mikel Mendizabal Ituartek berak laburtzen duenez, Miren Azkaratek eta Juan Carlos Moreno Cabrerak uste dute hiztunak munduko hizkuntza guztietan komunika daitezkeela berdin, "esaterako, ingeles modernoan edo Australiako hizkuntza aborigen batean, eta horrela egiten ez bada, ez dela, hain zuzen, hizkuntza bat bestea baino osatua goa edo errazagoa delako, baizik eta beste zenbait arrazoiengatik, politikoak, historikoak, ekonomikoak, eta abar". Beste bi hizkuntzalariei dagokienez, Bernard H. Bichakjiani eta Jesus Rubiori, alegia, hauek uste dute errazagoa dela zenbait hizkuntzatan hitz egitea. Egitura desberdinekoak diren hizkuntzak aztertu ondoren, ikus daitekeela, adibidez, badela garabide sintaktiko bat, gomendio eta aukera linguistikoak proposatzean kontuan hartu beharko litzatekeena. "Hizkuntza batzuk –edota hizkuntza jakin baten ezaugarri batzuk–, beste batzuenak baino komunikatiboak izan daitezke, eta elebidun den hiztunak beti izango du joera –alderdi afektiboak alde batera utzita–, bi hizkuntzetatik bat aukeratzeko: komunikatzeko errazen egiten zaion hura, alegia", egileak berak bi hizkuntzalarion hitzak laburtzen asmatu duenez. ■



"Gaurko hau ibilbide baten helmuga da, baina hasiera baten abiapuntua"

ANGEL OIARBIDE
Gure Esku Dago.
Giza katearen elkarlaneko saioan
2014/06/08

behar den tokian, behar den momentuan

INFO  EGIN ZAITEZ BAZKIDE

«Kooperatibagintzak demokrazia ekonomikoa proposatzen du»

Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegiak gonbidatuta, Kooperatibagintzaren II. Topaketetan izan da Ignacio Ramonet (Pontevedra, Galizia, 1943) pentsalari altermundialista eta *Le Monde Diplomatique*-ko zuzendaria. Geopolitika eta geoekonomiaren mapa marraztu ondoren, finantza globalizazioaren aurrean kooperatibek duten paper garrantzitsua azpimarratu du. Azken horretaz esandakoak ekarri ditugu gurera oso-osorik.

| URKO APAOLAZA AVILA |

ZEIN NEURRITAN izan daiteke kooperatibagintza irtenbide bat? Egiaz, kooperatibagintza –partizipatismoa– irtenbidea da finantza globalizazioaren gizartean nagusi diren baloreen orde bestea balore batzuk transmititzen dituelako. Filosofia ezberdina proposatzen du, eskusiboki inbertitzaileen interesak asetzera bideraturiko ekonomiaren aurrean. Kooperatibagintzak egiazko demokrazia ekonomikoa proposatzen du, langile-bazkideen parte-hartzearekin, langileak produktoreak eta aldi berean enpresaren jabeak direlako.

Sekulako aldea dago. Kooperatiba aktore bat da kapitalismoan, merkatuan dihardu, baina ez da enpresa kapitalista bat. Marxek nola definitzen du kapitalismoa? Gizonak gizona esplotatzen duenean. Definizioz, kooperatiba batean ez dago esplotaziorik. Kooperatiba bat da euren borondatez proiektu

tu ekonomiko baten inguruan bildu diren autonomoen elkarte bat, elkarrekin lan egitea erabaki duten langileena.

Kooperatibagintzak hainbat balore ditu: elkar laguntzea, erantzukizuna, demokrazia, berdintasuna... Globalizazioaren aroan finantza kapitalak duen funtzionamendu egoista eta esplotatzailearen guztiz kontrakoa. Noski, suposatzen da kooperatiba bateko bazkideek lan egiten dutela espiritu zintzoarekin, gardentasunez, erantzukizunez... Enpresa kapitalista tradizionalak ez du beti hori permititzen.

Kooperatibak printzipio batzuk ditu, eta horiek ez dira existitzen errentagarritasunean baino pentsatzen ez duten enpresetan, akzionisten exijentziak asetzera helburu duten enpresetan ez daude printzipio horiek. Kooperatiba baten kide libreki egin zaitezke, gestio demokratiko eta kolektiboa du, langileak



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserriaren Kooperatiba
Atallu Industrialdea 26 Usurbil 20170 Gipuzkoa

- Elikagai ekologikoak
- Usurbilgo baserrietako produktuak
- Sagardogintzarako tresneria
- Tratamendu naturalak
- Onttoen haziak...
- Banaketa zerbitzua

DENDAREN ORDUTEGIA
Asteleheneetik-Ostiralera: 9tatik-13tara eta 16tatik-19.30tara
Larunbatetan: 9tatik-13tara

Tel/Fax: 943 36 11 14
www.alkartasunausurbil.com • alkartasuna@usurbil.com
<https://www.facebook.com/alkartasunausurbil>



TULANKIDE

• TERMOMETROA

kan apur hori, hau da, estatuak jendartearekin konpartitzen zuen ondarea. Ez da pentsatu behar estatu neoliberalak ezer jarri dezakeenik pribatizatzen denean, hainbeste sektoretan egiten ari diren moduan. Egiaz, nazio horren kolektibitateari eskubide bat lapurtzen ari zaio, ondasun bat, patrimonio bat.

Ekvadorreko eta Boliviako estatuak nola erantzun dute? Ondo bizitzaren printzipioa konstituzioan sartuta eta betikotuta. Pertsonen hainbat gauza bermatu nahi dizkiete: oinarrizko beharrak asetzea; bizi kalitatea; heriotza duina; maitatzea eta maitatua izatea –hau guztia Ekvadorreko konstituzioan dago–; denok naturarekin armonian eta osasunez loratzea; kultura eta hizkuntza gutxituen iraunkortasuna; kontenplaziorako denbora libre; emantzipazioa... Kooperatiba batean badago askatasunik hori egiteko, kooperatibistak kontzienteki parte hartzen baitu hain enpresa singularrean. Kapitalismoan existitu dezaketen enpresa esplotatzaile eta egoistekiko, eta errentagarritasun hutsa bilatzen duten horiekiko oso ezberdina da kooperatiba; horrek ahalbidetzen du beste filosofia bat sortzea.

Jakina, kooperatiba askotan arazoa da nola nabarmendu parte-hartzea, nola antolatu demokrazia parte-hartzailea kooperatibaren jardunean. Horrek esan nahi du demokrazia parte hartzailea mantendu egin behar dela, estimulatuta eta etengabe proposatu.

ekonomian eta etekinetan parte hartu dezake, kooperatibak autonomia gehiago dauka, independentzia gehiago, kooperatiben artean kooperazioak elkar laguntza bultzatzen du. Azken batean, kooperatibak bere komunitatean arreta jartzen du.

Honek ez du esan nahi idealistak garenik edo pentsatzen dugunik kooperatibetan lan egiten duten guztiak aingeruak direla. Badakigu kooperatiba askok enpresa kapitalista tradizionalen ibilbide bera egin izan dutela, bazkideek etekinetan gehiago parte hartzeko desio nahiko egoista dutela. Baina kooperatibagintzaren sakoneko filosofia kontra-eredu bat da, eta inoiz baino beharrezkoagoa mundu globalizatu honetan.

Ramonet Arrasateko Garaia Berrikuntza gunean ekainaren 20an emandako hitzaldian. Kazetariaren ustez kooperatibetan badago askatasunik Latinamerikako *sunac causai* (ondo bizitzea) kontzeptua eta horren atzean dauden balioak garatzeko.

Ekvadorren eta Bolivian ondo bizitzea

Ideologia kooperatibista, parte hartzaile eta solidario hau Latinamerikan agertzen ari den proiektuarekin konparatzen dut. Ekvadortarrek eta boliviarrak *sumac causai* deitzen diote. Zer esan nahi du hitz horrek? Ondo bizitzea. Ondo bizitzaren filosofia da. Ekvadorreko eta Boliviako konstituzioetan ideia hori barneratu da: ondo bizitzaren printzipioak gehitu dituzte. Estatuak obligazioa dauka biztanleriaren oinarrizko beharrak asetzeko. Proiektu hau jartzen dute estatu neoliberalaren proiektuaren aurrez aurre.

Gobernu progresistak dauden Latinamerikako herrialde asko estatu neoliberalak egindako sunsiketaren ondorio dira; jendarteari bere ondarea kendu zitzaion. Pobreak ez dutenean ezer, oraindik badute ondare bat: sektore publikoa. Ezer ez duen pobre batek, badu eskola bere seme-alabentzat; ezer ez duen pobreak ospitalea dohain dauka bera eta bere familiarentzat; ezer ez duen pobreak badauzka estatuak subentzionaturiko garraio publiko merkeak eta etxebizitza bat ere izan dezake. Eskola pribatizatzen denean, klinika eta osasuna pribatizatzen denean, etxebizitza edo garraioa, pobreaki lapurtzen ari zaio zeu-

Kooperatibagintza "inprobisatua" Argentinan

Berriketan Argentinan izan naiz, bisita egiten langileek okupaturiko enpresetatik sorturiko hainbat kooperatibetara. Argentinan 2001eko krisia izan zenean, sektore anitzetako jabe-enpresariak –zapata fabrikak izan edo hotelak izan– langileei hainbeste soldata eta interes zor zieten, gauetik goizera enpresa itxi eta atzerrira joatea erabaki zutela. Baina langile askok fabrika horiek okupatu zituzten eta kooperatibatan antolatu ziren produzitu eta errentagarri izaten segitzeko.

MENU OSASUNGARRIAK
**Ondo jatea...
ondo bizitzea da!**

Uribarri Etorbidea, 35 · Arrasate · ☎ 943 794 611
auzolagun@ausolan.com · www.ausolan.com

Entzuleak galdezka

Protektionismoa: Frantziako Gobernuak esan zuen ez zuela utziko Fagor Brandt hondoratzen. Fagorren kasuan, lehendakariak esan zuen ezin zuela ezer egin, bestela zigortu egingo zutela.

Finantza globalizazioaren egiturak erabakigarriak dira eta politikarien maniobratzeko tartea oso mugatua.. Fagorren kasuan euskal agintariak esan zuten ezin zutela ezer egin, Europako araudiengatik. Frantziako Montebourg ministroak ere ezin izan du saihestu hamarnaka lantegi ixtea. Estatuak ezin du industria bat lagundu, lehiari dagoen beste industria batek salatu dezakeelako. Hori da eraiki dugun Europa, genetikoki neoliberala.

Protektionismoa solidarioaren gaia mahairatu behar da. Protektionismoa gaur egun hitz lizuna da, baina zeinek praktikatzeko merkatu librean? Ha-Joon Chang korearrak *Kicking Away the Ladder* (Eskailera kendu) liburuan dio hasieran AEBak protektionista sutuak zirela, baina merkatua menperatzea lortu zutenean “eskailera kendu” eta inork protektionismoa egitea eragotzi dutela.

Mapa geoekonomikoan, zer ekarpen egin dezake ekonomia sozialak?

Hedatzen ari den mugimendua da. Krisiak ekarritako hondamendi ekonomikoaren ondorioz kooperatibak biderkatu dira, jende askok ondorioztatu du auto-antolatuta behar duela bestelako ekonomia batekin. Frantziako S.Coop-ak oso sektore garrantzitsua dira; Latimerikan proiektu kooperatiboak sustatzen ari dira... Etika ekonomikoaren eskaerari erantzuten dio ekonomia sozial eta solidarioak.

Hazkunde famatuaren gaian, zein dira marra gorriak?

Azken aldiz 2002an etorri nintzen eta orduan “erraldoitasunaren” gaia zen kezka. Zehazki, Maroko eta Poloniako langileen estatutuek ez zituztela bertakoaren baldintza berak, eta horrek etika arazo sortzen zuen. Esplotazioa igarotzen ari zineten. Noraino hazi liteke kontrola galdu gabe? Zer neurritan biderkatu beharko liriteke giza tamainako kooperatibak, autonomoak, eta ez multinazional baten antza duen zuhaitza sortu? Galdera horri erantzun beharko zaio. Mondragon erreferentzia da mundu osoarentzat, denak begira dituzue, denek nahi dute Mondragonetik ikasi.

Kooperatibagintza inprobisatu horrekin hamar urteotan hartutako esperientzia handia izan da. Beraiek esaten dute garrantzitsua dela bazkideei beti gogoratzea kooperatiba baten parte direla, ez direla enpresa baten soldatapekoak, eta parte hartzea estimatu behar dela. Elkartasuna, elkarriketa, eta bazkide eta gerentziaren arteko harremana etengabe artikulatu behar dira. Kooperatibaren antolaketa-egituraren berrikuntzak imajinatu eta egitea ere oso garrantzitsua da eurentzat, ez da utzi behar kooperatibaren egitura betikotzen, forma berriak aurkitu behar dira, trenak daraman erritmo errepikakor horretatik ateratzeko. Izan zituzten milaka eztabaidetatik, ondorioztatu dute bazkideak derri-gorrez bere gain hartu behar duela erantzukizun ekonomiko eta sozial bat kooperatibaren barruan. ■



VITORIA
GASTEIZ
green capital



Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

LANTEGIAK ETA IKASTAROKAK

Kustomizatu zure armairua eta berreskuratu zure arropa erabilia
HAZIAK
Uztailak 14-18, 11:00-14:00
Landatxoko gizarte etxea
14-30 urte

Surf camp Ikastaroa
GAUEKOAK ETA MINTZALAGUNA
Uztailak 5-6 eta 12-13
Zarautzeko hondartza
40 euro (ikastaroa+autobusa)

Paddle Surf Ikastaroa
GAUEKOAK
Uztailak 20
Bilboko itsasadarrean
20 euro (ikastaroa+autobusa)

DIBERTIKALE

Irriparra barra-barra
Kiki, Koko eta Moko
Caracas oinezkoentzako kalea
Uztailak 7, 19:30

Mamu txikiak
Oihulari Klown
Sefarad plaza
Uztailak 8, 19:30

Konposteroak
Arriaga gizarte etxearen ondoan
Uztailak 10, 19:30

Txan-txan-txetan
Sambhu teatro
Abetxukuko kiroldegiaren
aurreko plaza
Uztailak 14, 19:30

Funes Van
The Funes Troup
Ibaiondoko gizarte etxea
Uztailak 15, 19:30

GIZARTE ETXE ETA KIROL INSTALAZIOETAKO 2014-2015 IKASTURTERAKO JARDUERA KANPAINA

Izena emateko epea irekita uztailean.
Aukeratu gustukoa eta
EUSKARAZ EGIN!

_Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



IDEIAK ARGITZEN

Mundua aldatu egin da, baita premiak ere. Orain eraginkorragoak gara, baina funtsekoena ez da aldatu: gure ilusioa, ekintzaileen ilusioa eta gure gizartearen garapenerako horien ideiek duten garrantzia.

Horri esker lagundu dugu ia 3.000 enpresa eta 5.000 lanpostu baino gehiago sortzen. Eta banka kooperatiboaren espirituari leial izanda soilik lortuko dugu askoz enpresa gehiagori laguntzea.

Bada beste modu bat.

Glasgow, txiroak 54 urterekin hiltzen diren hiri aberatsa

Eskoziako hiri nagusi den Glasgow benetan bi dira. Auzo pobreenetan jaio direnak batez beste 28 urte gutxiago bizi dira alderdi aberatsenean sortuak baino. Munduko Osasun Erakundeak salatu zuen 2008an baina sei urteotan leizea are gehiago sakondu da, berrikitan Oxfamek salatu duenez. Murrizketa eta karitate gehiago agindu diete.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

GLASGOW CONTRE GLASGOW FILM laburrari bigarren titulutzat “Pobre bizi aberatsen hirian” ipini dio Julien Brygo kazetariak. *Le Monde Diplomatique*ek plazaratua, *Vimeon* ere ikusgai dago. Brygok berak egindako argazkiekin uztartu ditu Eskoziako hiri handiko leize soziala ikertzean lortu zituen lekuko esanak.

Brygok ez ditu pozik edukiko Glasgown *Rothary Club*eko kideak. Hiriko burgesiarik aberatsenaren biltoki eta karitatezko ekintzen sustapen gunea den klubera konbidatu zuten Brygo, filmean ageri denez: “Adiskideok, konbidatu berezia daukagu gaur gure artean, Julien Brygo, ikertzen ari dena Glasgownko pobrezia, eta Rothary Clubeko kideoi galdetuko diguna nola murriztu txirotasuna”. Bideoaren amaieran ageri denez, aldizkariko zuzendaritzari kexa azaldu diote hiriburu distiratsua irudi ilunegia eman duelakoan. 25 minutuko dokumentala ikusita epaituko du irakurleak.

Munduko Osasun Erakundeak 2008an jakinarazi zuen hiriko auzo pobreenetako biztanleek 28 urte gutxiagoko bizi itzaropena zutela aberatsenek baino. Hegoaldeko auzuneko aberatsenetan 82 urtetara helduko dira batez beste; hiriaren ipar eta ekialdean bizi diren txiroe-

nek ez dute 54 urteen muga gaindituko. Hauek Bangladesheko media baino 14 urte gazteago hiltzen dira.

Klubeko lehendakari Michel Guyk aitortu du egia dela. “Ez da pobre izateagatik gertatzen beti, gehiago da elikadura eta bizimodu kontua. Alkohola... Eskoziako Gobernuak ezarri ditu hobetzeko programak, eskoletako menuak aldatu dira, baina umeek nahiago dituzte *fish and chips* eta patata frijituak saltzen dituzten postuak kantinetako janariak baino. Ezin da gauza handirik egin”. Klubeko presidentearen urrezko koilara –46.000 euro balioko ditu– darabala mintzatu zaio Guy. Bera bezalako 11.288 milioiun zeuzkan zerrendaturik 2007an Glasgown.

“Etorri berri naiz Indiatik eta esango dizut hemengo pobreak ez direla hain txarto bizi”. William Haughey mintzo da horrela, 26.a Eskoziako aberatsenen zerrendan 181 milioi euroekin. “Kontu eman behar da zeri deitzen zaion pobrea edo aberatsa. Hemen pobreak lehengo hiltzen dira eta lan egin behar da horretan, baina beren bizitzeko eragatik da, ez txiroak direlako”. Autoaren matrikula ere berea du: “*I-WHP*” (Ni, William Haughey).

Haygheyk uste du ongizate estatuak jendeari baimendu diola bizi-rautea gauzak bere ardurapean

Daily Record gunetik hartutako argazkian, Glasgownko kartel pobre bateko mutikoa, 55 urteak bizirik ospatzeko itzaropen gutxi daukana. *Glasgow contre Glasgow* dokumentalean Liam Young udal funtzionarioak azaldu du bazterketa soziala gizakien osasunaren okerragotzearekin nola dagoen lotuta. 1980ko hamarkadan industria asko itxi zuten hirian, auzo osoak aurkitu ziren langabezian: Calton, Easterhouse, Parkhead, Castelmilk, Polsal... 50 urterekin aita lanik gabe geratutako familietan handitu dira haurrak. Droga heldu zen gero. Lana zutenek ihes egin zuten auzootatik eta bertara langabe gehiago etorri. “Filantropiaz ari diren aberats handi horiek ez dute sekula ezagutu etorkizunik gabeko bizimodu hau”. Thomas Hunter aberatsaren erantzuna: “Dirua dutenak konbentzitu behar dira diru gehiago eman dezaten. Zerga gehiago ez, aberatsek ez dute maite inposizioa”.

hartu gabe. “Nik esatea badaukat hori Alderdi Laboristako kidea izanik, ez bainaiz aberats jaio, langileen giroan jaioa naiz eta ongintzazko estatuak desilusionatu nau”.

Eskoziako Alderdi Nazionalako zinegotzi Fanny Scally auzune txiroetan hautatu dute. Langileen semea, gogoratu du aita 84 urterekin eta aiton-amonak 90 baino gehiagorekin hil zitzaizkiola, pobreak izan arren. “Egoera soziala aldatu da. Jendea hiltzen du drogak, kaleko agresioek... Historian bizi-itzaropen hain apala aurkitzeko gerra arteko garaietaraino jo behar genuke. Ondo iruditzen zait aberats asko etortzea Glasgownra, baina hobeto legoke aberastasuna era justuagoan banatzea”.

Murrizketa sozialak eta karitatea

2010ean Brygo kazetariak berak idatzia du Margaret Thatcher bere neoliberalismo basatiarekin iritsi artean hiri industrialak izandako Glasgow ezkertiarrean inoiz ez dela gaur bezain ikusezina izan klaseen arteko gorrotoa. Auzo batzuetako eta besteetako biztanleen artean dagoen 28 urteko bizi itzaropen tartea loturik dagoela aberatsen eta txiroenen arteko bereizketa sozial eta baita geografikoarekin ere.

Halako apartheid soziala lurrikaririk gabe betikotzeak erakusten du



konpondu. Ahalik eta ahulen behar-ko luke Estatuak. Norberak erabaki behar du zer nahi duen eta Estatuak bakean utzi behar gaitu merkatu librean”. Thatcher agintera iritsi arteko egoera balitz, Hunterrek bere irabazien %98 Estatuari pagatu beharke zion zergatan; gaur egun %45 eta gainera karitatea zergetan salbuetsita dago.

Aberatsenekin solastatu ostean txiroenen bila doa kazetaria. Wyndforreko dorreak dira Europako hiri guztiek dauzkaten auzune madarikatuetao eraikin triste tipikoak. Andy Whright langabetu gaztea izango du gida. “Arratoiak bezala bizi gara mundu aberatsaren erdian, beti laguntza sozialak moztuko dizkigutela mehatxaturik”. Baina jendea 54 urterekin hiltzen diren auzuneetan ez da ezer berezirik ageri. Brygok dioenez, “hirigintzak baketu ditu auzuneak. Klase borroka Glasgown ikusezina da, laua, oharkabean pasatze-koa”. Golf zelaiek bereizten dituzte aberatsak alde batera, pobreak bestera.

Lehen auzo obrero izanak merkatalgune bihurtu dituzte. Hiperrean jaki merkeenak erosiko ditu substantziaren bati loturik denaren itxura daukan Whright langabeak. “Baina zorte txarrak ekarri gaitu honaino, honek ez du zerikusirik aberats edo pobre izatearekin”.

Joan den martxoan Oxfamek plazaratu ikerlanean erakutsi du Britainia Handian azken urteotan gotorragotzen ari dela aberatsen eta txiroen arteko hesia. ■



zer nolako lan ideologikoa egin duten azken 30 urteotan, XIX. mendeko eskemara itzuli arte: txiro gaiztoak alde batetik, bihotz oneko aberats filantropoak bestetik.

593.000 biztanle dauzkan Glasgown baditu 10 golf zelai pribatu inguruetan, 20 jatetxe gastronomiko kario, luxuzko 5 merkatalgune, 5 izarreko 7 hotel. Luxuzko produktuetan Londresen ondoren dago Glasgow. Hemengo Buchanan karrika munduko zazpigarren garestiena da. Eduki daiteke kontzientzia lasai metro gutxira jendea mixerian bizi delarik? Baietz... filantropia praktikatzekotan.

Thomas Hunter da filantropo eskuzabalenetakoa. 1998an lehen enpresa saltzeko zori ona eduki

zuen, 310 milioi euro irabaziz. XX. mende hasieran munduko eskoziarrik aberatsena izatera heldu zen Andrew Carnegyren ereduak lilurata ekin zion: “Filantropia ona da eta oso dibertigarria. Zergatik utzi besteei dibertimendua, norberak egin ahal izanda?”. 1.260 milioi zeuzkan bankuan 2008an Eskoziako gaurko gizonik aberatsenak.

Hunterrek 60 milioi euro oparitu dizkie karitatezko ekintzei. Eskoziako legebiltzarrak saritu zion bere bihotz ona. Orain David Cameronek are propaganda gehiago egiten die filantropoai, Estatuaren aurrekontuetan ezarri dituen murrizketen eraginak arinduko dituztelakoa.

Hunter mintzo: “Nire iritzian Estatuak ezin ditu arazo guztiak



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona



DANI BLANCO

Fundazioak, konfiantza ezaren arrazoiak

ZERGATIK ez dago euskal gizarteko sektore zabaletan konfiantzarik Kutzabanken pribatizazio prozesu honetan? Funtsean, azken bizpahiru hamarkadetan finantza munduaren norabidea etekin basatia bilatzera bideratua izan delako eta horrek eragin duelako 2008tik aurrera bizi den krisi ekonomiko larria. Krisiaren azterketaren analisia gehienetan aipatu izan da finantza mundua askeegi zebilela eta funtsezkoa zela bere norabidea birdefinitu eta oinarri berrietan botere publikoen kontrol handiagoa finkatzea. Ez dago horrelakorik, ordea, eta finantza munduaren indarrak ez die utzi botere publiko-
ei beraiek izan daitezten birfundatze etiko eta ekonomikoaren gidariak. Horren adibide asko dago. Orain, adibidez, EBko bederatzi estatuk Tobin tasa indarrean jartzea 2016ra arte atzeratu dute eta finantza eragiketei jarriko zaien zerga hasieran aurreikusitakoaren hamarrena izan liteke (%0,1etik %0,01era).

Gertuagoko deskonfiantza arrazoiak ugariak dira. Esate baterako, PP eta PSOE izan dira Espainiako aurrezki kutxen sarea desegin dutenak: lehenik barrutik, Espainiako aurrezki kutxak adreiluaren burbuilari itotzera bideratutako kudeaketarekin; eta hondamendia eragin

ondoren, geratzen ziren arrastoak banku handien eskuetan jarriz, eta diru publikoa finantza munduaren erreskatera bideratuz.

Euskal kutzetan, lautik hiruk hobeto erantzun zioten finantza burbuilaren leherketari, baina ez ondorio larri barik: adreiluak hauek ere gogor kolpatu zituen eta sektorearen birmoldaketak lanpostu eta bulego ugariren itxiera ekarri du. Baina laugarren kutxaren amaiera ere hor da eta CANen hondamendiak nabarmen elikatzen du egungo konfiantza eza.

EAJ-REN jarrerak ere susmo txarrak eragiten ditu. Kutzak fundazio bihurtzearena Europako Batasunak eta Espainiako Legeak agindutako prozesua dela azpimarratu du etengabe, bai ala bai bete beharrekoa, baina ez du prozesu hori salatu –LOMCErekin bezala, adibidez–; ez du bere desadostasuna agertu eta argudiatu. Aitzitik, prozesua aukera gisa saldu du, legeak pribatizazioa bultzatzen duela onartuz, baina egiazki kutxen izpirituan aldaketarik ez dela egongo salduz, fundazioen kontrolaren bermea konfiantzazko pertsona talde batean oinarrituz. Baina kutxen patronatoen kontrolean Espainiako kutxa sarea

desegin duten PP eta PSOE badi-ra, nola ez pentsatu azeria jarri dela oilategiaren zaindari?

Thomas Piketty ekonomialari frantziarraren *Le capital au XXI^e siècle* (Kapitala XXI. mendean) liburu ospetsuaren funtsa da aberastasunaren banaketa gero eta desegokiagoa dela. Horretarako azken mende eta erdian munduko herrialde garatuenetan egindako azterketa erraldoia jarri du mahai gainean. Besteak beste zera dio: azken 150 urteetan ekonomia %1-2 hazi da urtero eta finantza mundua %4-5. Eta honakoa azpimarratzen du ondorioetan: “Aberastasunaren banaketaren historia, sakonean oso historia politikoa da eta ez litzateke mugatu behar bakarrik mekanismo ekonomikoetara”.

Finantza merkatuen indarra azken mende eta erdiko handiena da egun. Bere eskutik datoz krisia zein irtenbidea. Nola izan konfiantza 15 pertsonako talde batek hobeto eutsiko diela presio horiei Batzar Nagusiek edo Eusko Jaur-laritzak berak baino? Egia, alternatibei buruz oso gutxi entzun da, baina euskal kutxen egungo norabidea beldurgarria da ■



HARPIDETZA ARDURADUN
LANPOSTUA
argia_n


Bide berriak irekitzera goaz. Kide bat behar dugu, gure proiektuarekin identifikatzen dena, harpidedun eta irakurleekin aurrez aurreko harremanak saretzen aritzeko

Ezaugarri hauek bilatzen ditugu:

- ARGIArekin identifikazioa
- Harremanetarako gaitasuna eta harreman sarea
- Komunikazio ikuspegia
- Iniziatiba
- Kudeaketa gaitasuna
- Esperientzia herri mugimenduetan

Bidali curriculumua **uztailaren 11 baino lehen** helbide honetara: estitxu@argia.com
Hautatuekin harremanetan jarriko gara.

ASTE HONETAKO Zozketak



Argiako harpedunentzat



Atxaspi Hotela

Relax gaua
(astean zehar)
bi lagunentzako

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1




Donostiako Aquariuma

4 lagunentzako
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



Iruñeko Planetarioa

3 lagunentzako
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

3



Goza daiteke gehiago

Euskaldun baten
hizkuntza-bidaia

Karmelo Ayesta
5 liburu

<https://sites.google.com/a/utriusque.com/utriusque-vasconiae/>

4



Okatxu

komikia opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2420. Argia)

IRIARTE JAUREGIA

• Juan M Lasa Tolaretxipi (Donostia)

• Andoni Alba Salaberria (Iruñea)

EKAINBERRI

• Aintzane Linaza Etxebarria (Gasteiz)
• Xabier Gracia Garde (Sarriguren)
• Maialen Zabaleta Madinabeitia (Arrasate)

GOVERNORS - Morphinapolis CDa

• Eneko Maioz Ganboa (Orexa)
• Justo Ezenarro Mugaguren (Bilbo)
• Josune Arandia Belaustegi (Lemoa)
• Kepa Gorordo Basaras (Durango)
• Imanol Arluziaga Esnal (Donostia)

EUREKA Zientzia Museoa

• Oihana Etxebarrieta Legrand (Elorrio)
• Juanjo Barandiaran Arratibel (Donostia)
• Edurne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)

ARGIA kamiseta

• Jabier Agirre (Donostia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea


Gunea

argia



argia

ikus-entzunezkoen
EKOIZPENAK



Komunikazio ikuspegi orokorra, iraunkorra eta lankidetzan oinarritua

- Zuzeneko emisioak
- Ekitaldien grabazioak
- Promozio bideoak
- Dokumentalak
- Itzulpenak eta azpitulazioak...

ARGIAko webgunearen eta sare sozialen bidez zabalduko ditugu lanak

GURE AUDIENTZIA **ZURE ESKU**

Gure ezagutza eta gaitasun osoa,
profesionaltasunez eta prezio onean

10 urteko esperientzia bideogintzan
eta 1.200 bideo baino gehiago ekoitziak

Informazio gehiago: 943 37 15 45 · ekoizpenak@argia.com